

PSIKOLOGIA

AINHOA ALMANDOZ ELICECHE

ERREFERENTZIA MEKANISMOEN
LANKETARAKO PROPOSAMEN
DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO
BIGARREN ZIKLOAN

GBL 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

**ERREFERENTZIA MEKANISMOEN
LANKETARAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA
LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAN**

AINHOA ALMANDOZ ELICECHE

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

AINHOA ALMANDOZ ELICECHE

Izenburua / Título

Erreferentzia mekanismoen lanketarako proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan.

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

ROBERTO SOTO VALLE

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia saila/ Departamento de Psicología y Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarritzko prestakuntzako moduluak bide eman dit, haurren garapen orokorra zein den ikusteko eta horretan oinarriturik proposamen bat egiterako orduan eman behar diren pausuak zeintzuk diren ikasteko, alderdi teorikoari zein praktikoari dagokionez.

Didaktika eta diziplinako moduluak bide eman dit, proposamenak egiten ikasteko, zehaztasun osoz. Beraz, didaktikaren ondorioz, eskola batean programa didaktiko bat nola egiten den ikusteko eta ikasteko aukera izan dut, guk planteatu ditugun unitate didaktikoen bidez. Lan honetan berriz, irakasleendako programa bat nola egiten den ikasteko aukera izan dut, bertan ematen diren zehaztasun guztiekin.

Halaber, Practicum moduluak bide eman dit errealitatean ikusteko nolako den eskolako bizitza. Hau da, praktiketako aldi hauetan, irakasleek nola lan egiten duten ikusteko aukera izan du. Beraz, lan honekin lotuz, proposamena egiteko orduan abantailak izan ditut batez ere metodologia zehazterako orduan baita ikasleek nola jardun behar duten ere.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira *introducción* eta *conclusiones* atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

LABURPENA

Gure hizkuntzan, askotan errepikapen lexikalik ez egiteko erreferentzia mekanismoak erabiltzen ditugu, zeinak lehendik aipatutako elementu bati hurrengo perpausean berriro erreferentzia egiten duten. Lan honetan, erreferentzia mekanismo bezala, aditzaren aldia eta pronominalizazioa, hitz baten ordezkapena izenordain eta aditzondoekin, erabili da. Horretarako, hasieran bi alderdi horiek testuetan duten zeregina azaldu da. Ondoren, haurren garapena alderdi horietan nolakoa den azaldu da. Horretaz gain, gaiaren trataera metodologikoa aztertzen da Lehen Hezkuntzako Bigarren zikloko euskara liburu ezberdinak aintzat hartuz, eta azkenik, erreferentzia mekanismoen lanketarako programa didaktiko bat proposatu da. Bertan, hasiera batean, programa baten elementuak zehaztu dira eta azkenik, ariketa ezberdinak planteatu dira, batez ere perpaus arteko korrelazioa lantzen dutenak.

Hitz gakoak: erreferentzia mekanismoak; pronominalizazioa; aditz aldiaren koherentzia; didaktika; Lehen Hezkuntza.

RESUMEN

En nuestro idioma, con frecuencia, para no hacer repeticiones lexicales empleamos mecanismos de referencia, los cuales, hacen referencia a un elemento mencionado en la oración u oraciones anteriores. En este trabajo, como mecanismos de referencia, se han utilizado, por un lado, el tiempo verbal y por otro, la pronominalización, que consiste en sustituir mediante un pronombre o un adverbio una palabra. En este trabajo lo primero que se ha analizado ha sido el papel que desempeñan esos aspectos en el texto. Luego, se ha expuesto el desarrollo que tienen los niños en los aspectos mencionados. Además, se ha analizado el tratamiento metodológico del tema mediante libros de euskera de segundo ciclo de primaria. Finalmente, se ha propuesto una programa didáctica para trabajar los mecanismos de referencia. En la programa, al principio se han especificado los elementos de un programa, y finalmente se han planteado diversos ejercicios, que trabajan la correlación de las oraciones.

Palabras claves: mecanismos de referencia; pronominalización; coherencia del tiempo verbal; didáctica; educación primaria.

ABSTRACT

In our language, we often make use of reference mechanisms in order to avoid lexical repetitions. These reference mechanisms are used to make reference again to an item previously used in a previous sentence. In this work, as reference mechanisms, we use verb tenses and pronominalization together with substitution of a word with a pronoun and also adverbs. To do this, first, we have explained the tasks of these two aspects. Then, children's development in the use of these two aspects has been described. In addition, the methodological treatment of this subject has been analyzed taking into account different primary language books of Basque, and finally, we have expounded a didactic program designed to work these reference mechanisms. Here, in principle, we have determined the elements of a program, and finally, different exercises have been proposed, especially those which work on the correlation between sentences.

Keywords: reference mechanisms; pronominalization; coherence on verb tenses; teaching; Primary Education.

AURKIBIDEA:

INTRODUCCIÓN	1
1.KOHESIOAREN ETA ADITZAREN PAPERA TESTUAN.	3
1.1 Kohesioa:	3
1.1.1 Erreferentzia mekanismoak (baliabide anaforikoak)	4
1.2 Aditzak	7
1.2.1 Aditzaren aldia	8
2. UMEEN GARAPENA BI ALDERDIETAN: ERREFERENTZIA MEKANISMOAK ETA ADITZEN DENBORA.	9
2.1 Erreferentzia mekanismoen garapena	9
2.2 Aditzaren aldiaren korrelazioaren garapena	12
3.ERREFERENTZIA MEKANISMOEN ETA ADITZ DENBORAREN LANKETA METODOAK	15
3.1 Erreferentzia mekanismoak eta aditza lantzen duten metodo ezberdinen azterketa.	15
3.1.1 Ibaizabal argitaletxea	16
3.1.2 Zubia Santillana argitaletxea.	18
3.1.3. Anaya Haritza argitaletxea	20
3.1.4. Elkar argitaletxea.	21
3.1.5. Giltza argitaletxea	23
3.2. Metodoen azterketaren ondorioak	24
4. PROGRAMA DIDAKTIKOA	25
4.1 Justifikazioa:	25
4.2 Oinarrizko gaitasunak	26
4.3 Helburuak	27
4.3.1 Helburu orokorrak	27
4.3.2 Helburu didaktikoak	27
4.4. Edukiak	28
4.5 Metodologia	30
4.6 Ebaluazio irizpideak	30
4.6.1 Curriculumeko irizpideak	30
4.6.2. Sorturiko irizpideak	31
4.7 Jarduerak	33
CONCLUSIONES	91
BIBLIOGRAFIA	93
ERANSKINAK	97

INTRODUCCIÓN

ANTECEDENTES, OBJETIVOS E HIPÓTESIS.

Se han realizado diversas investigaciones acerca del proceso de adquisición infantil de los mecanismos de referencia. Shum (1993), por ejemplo, se centra en la investigación del desarrollo de los pronombres personales, y defiende un proceso de adquisición con inicio temprano, ya con las primeras producciones infantiles, pero cuyo empleo correcto se demora hasta más allá de los 8-9 años, debido, entre otras razones, a la bifuncionalidad (deíctica y anafórica) que poseen.

En investigaciones acerca del tiempo verbal, escasas por otra parte, se ha reflejado que los niños tienen dificultades a la hora de interpretar la secuencia del tiempo dentro de una frase. Una de las razones es que los niños no entienden los conceptos con la simultaneidad o anterioridad (Serra, Serrat, Solé, Bel eta Aparici, 2000).

Por otra parte, teniendo en cuenta los materiales didácticos, se ha visto que hay muy pocos ejemplares que trabajan los dos aspectos mencionados, ya que el tiempo verbal, los pronombres o los adverbios, los trabajan independientemente, sin relacionar diferentes tiempos verbales o tipos de pronombres o adverbios, y con escaso hincapié en la función anafórica. Esto, posiblemente, contribuya a un desarrollo algo más tardío de la pronominalización o de la correlación temporal en los niños y sus consecuencias en las capacidades discursivas. Se considera importante, aplicar programas de enseñanza de lengua que contemplen estos aspectos de modo sistemático en la clase de Lengua, y es precisamente éste el punto de partida de la propuesta que se plantea en este trabajo. Se trata de dimensionar en una mayor medida la importancia de la didáctica de los mecanismos referenciales, elaborando materiales que incorporen propuestas y materiales adecuados para las edades en las que se comienza a trabajar estos conocimientos lingüísticos, en general en el segundo ciclo de la Educación Primaria.

De esta manera, en el primer capítulo, se explica de brevemente el papel que tienen la pronominalización y la coherencia del tiempo verbal en los textos, como recursos específicos para la cohesión textual.

En el segundo capítulo, el desarrollo de la pronominalización y la coherencia verbal en los niños, donde, se han reflejado aportaciones de diversos autores. En el tercer capítulo, se analiza el tratamiento metodológico que ambos aspectos tienen por parte de distintos autores y editoriales actualmente utilizados en los centros escolares, para lo cual se han revisado los materiales correspondientes al segundo ciclo de la Educación Primaria, tanto el libro del alumno como la guía para el profesor.

En el cuarto capítulo, se ha propuesto un programa didáctica para trabajar los mecanismos de referencia. En la primera parte, se han especificado diferentes contenidos del programa. Después, se han propuesto diversos ejercicios para trabajar la coherencia verbal y la pronominalización. Cabe destacar que la mayoría de los ejercicios se realizarán mediante fichas preparadas por el profesor. El objetivo de los ejercicios es lograr que los estudiantes sean más autónomos, para ello, el profesor tendrá un papel de observador, por lo tanto, la iniciativa de realizar los ejercicios tendrán los estudiantes. Otro de los objetivos es que los estudiantes trabajen en grupo, donde se promoverá el respeto entre ellos y los grupos interactivos. Por lo tanto, se intentará fomentar el aprendizaje significativo.

La propuesta didáctica que se ha realizado en este trabajo, se quiere que sea útil para los profesores del segundo ciclo de Educación Primaria, porque propone diversos ejercicios, con los objetivos y la metodología para trabajar los aspectos que hasta ahora se han trabajado muy poco.

Pero, se tendrá en cuenta la dificultad de los ejercicios para distribuir la clase en grupos o no. Cabe destacar, que esa decisión la tomará el profesor cuando lo vea necesario. Además, tendrá en cuenta los alumnos que tienen dificultades y tomará las medidas necesarias.

Por último, se espera que la propuesta sea útil para los estudiantes, que mediante los ejercicios planteados fortalezcan y desarrollen los conocimientos previos y que aprendan e interioricen nuevos conocimientos.

1.KOHESIOAREN ETA ADITZAREN PAPERA TESTUAN.

Zenbait dira testu on batek eduki behar dituen ezaugarriak. Neurri handi batean, idazteko ohitura duen guztiak jarduera horretan ardura pixka bat jartzen baldin badu, ongi xamar beteko ditu hemen aipatuko ditugunen moduko ezaugarriak, baina ez dago sobera ezaugarriok zein diren eta zertan datzan azaltzea. Ondoko hauek dira testu on bat osatzeko kontuan hartzeko ezaugarri nagusiak: aurkezpena, egokitasuna, zuzentasuna, estilistika, koherentzia eta kohesioa. Sei ezaugarri hauetatik, lan honek duen aztergaia kohesioa izango da eta honen barruan erreferentzia mekanismoak. (Alberdi et al, 2005).

1.1 *Kohesioa:*

Testuko zatiek (hitzek, sintagmek, esaldiek eta abar) eraman behar duten lotura sintaktikoari deritzo kohesioa. Testua osatzen duten elementuak ez dira banakako unitateak, josirik joan behar dute. Zenbat eta hobeto josi elementu horiek, kohesio hobe izango du testuak. Juntagailuak, menderakuntzako erlazio-hizkiak, elipsiak, lokailuak, antolatzaileak, deklinabide-atzizkiak eta abar dira kohesio elementuak. Beraz, kohesioa, testuaren zatiak elkarrekin lotzen dituen lotura-prozedura da.

Testuen kohesioa bi mailatakoa izan daiteke:

1. Perpaus mailakoa (lotura gramatika): perpaus barruko unitateen (hitzen, sintagmen eta abarren) loturak bideratzeko baliabideak dira, eta ondoko hauek dira nagusiak: deklinabideko kasuak, postposizioak, juntagailuak eta menderagailuak.
2. Testu mailakoa (lotura diskurtsiboa): horien bitartez testuko pasarteak eta zatiak lotzen dira eta jartzen dira harremanean. Ez dira perpausari begira kokatzen, baizik eta testuaren lotura eta egiturari begira. Testu mailako kohesioa erreferentzia-mekanismoez eta konexio- mekanismoez egiten da (1. Taula.

1.taula: Kohesio mekanismoak (Alberdi, 2005)

KOHESIOA	
Testu mailako prozedurak	
Erreferentzia mekanismoak	Konexio mekanismoak
Ordezkapen lexikala	Testu antolatzaileak
Elipsia	Lokailuak
Determinazioa	Puntuazio ikurrak
Hitz-errepikapena	Bitarteko paralinguistikoak.
Pronominalizazioa	

1.1.1 Erreferentzia mekanismoak (baliabide anaforikoak)

Erreferentzia mekanismoa, testuan lehendik agertu den elementu bat, hurrengo perpausean berriro erreferentzia edo aipamena egitea da. Aipamen edo erreferentzia horrek ematen dio lotura edo kohesioa testuari. Erreferentzia hori, modu bat baino gehiagokoa izan daiteke (Alberdi, 2005).

- Ordezkapen lexikala: erreferentzia den hitza edo elementua beste batez ordezkatzea. Modu bat baino gehiagotan egin dateke:
 - *Sinonimia*: esanahi bereko hitza erabiltzea
 - *Hiperonimia*: eremu semantiko zabalago duen ordekoa tartekatzea.
 - *Hiponimia*: eremu semantiko estuagoa duen hitza erabiltzea.
 - *Perifrasia*: ordezkapena hitz multzo baten bidez egitea. Askotan, idazleak eta irakurleak konpartitzen duten jakintzan oinarritzen da.
- Elipsia: elementu bat esan gabe uztea da. Batez ere aurrekaria perpaus konposatu beraren mugan dagoenean erabili ohi da.
- Determinazioa: determinatzaileek ere (artikuluak, erakusleak, zenbatzaileak) kohesio-lana egiten dute testuan. Ezaguna/ezezaguna, urrun/gertu eta abar bezalako harremanak adierazten dute. Esate baterako, elementu bat lehenengoz aipatzen duenean zenbatzailearekin egiten da, eta gero, artikularekin edo erakuslearekin egiten zaio erreferentzia.
- Hitz errepikapena: Testu batean zehar gai- aldaketarik ez badago ere, gai nagusiari dagozkion elementuak errepikatzea komeni zaio.

- Pronominalizazioa: beste baten ordezkapen lana egiten duten elementu linguistikoen erabilera da. Hiru elementu erabiltzen dira:
 - Izenordainak: hori hura, horiek, haiek, ni, zu e.a.
 - Aditzondoak: hemen, hor, han, hortik e.a.
 - Makulu-hitzak edo esanahi zabala duten hitzak: gorabehera, gauza, pertsona, elementua, egin e.a.

Mekanismo nagusietako bat pronominalizazioa da eta funtzio hori betetzen dituzten hizkuntza elementu nagusietako bat izenordainak ditugu. Izenordaina izenaren ordezkagertzen da, eta berak bakarrik osatzen du izen-sintagma, ez baitu beste elementuen beharrik, ezta mugatzailearenik ere. Bere esanahia erreferentziala da eta testuinguruaren menpe dago.

Pronominalizazioaren barruko baliabide anaforikoen multzoa osatzen dute izenordainek, hala ere, anaforak beste edozein kategoria gramatikaleko unitate lexikoa izan daitezke, hala nola, izena, adjektiboa, aditza, etab., eta beraien funtziorik nagusia testuan aurretik agertu den erreferente bati erreferentzia egitea dela. Funtzio horri pronominalizazio deritzo.

Pronominala. Elementu anaforikoa determinatzailea edo izenordaina izan daitezke. Hala ere, anafora bezala jokatzeko duen determinatzaileak izenordain funtzioa hartuko du esaldiko beste elementuren bati erreferentzia eginez. Izenordain funtzioa betetzen duten determinatzaile hauek ematen diguten informazio lexikoa urria denez, oso murriztailea dela esan genezake eta horregatik, aurrekariak erraz detektatzeko moduan agertu behar du esaldian. Aurrekaria eta anaforaren arteko tartea ez da oso zabala izango, entzuleak bestela ez baitu jakingo esaldiko zein elementuri egiten ari zaion erreferentzia eta ez du izango izenordaina egoki interpretatzeko informazio nahikoa.

Adibide gisa: [Tourrerako apustu gogorra] egitea ona da, baina hura ondo irteten ez bada (...)(Aduriz, Ceberio, Díaz de Ilizarra, 2005).

Pronominalizazioaren funtzioan, izenordainek zeregin garrantzitsua dutela ikusi da, beraz, hauek sailkapen zehatz bat daukate (2. taula):

- *Bihurkariak edo elkarkariak*: Perpaus batean bi izen-sintagma edo gehiago erreferentzia-kide direnean, errepikapenik gerta ez dadin erabiltzen dira.
- *Izenordain zehatzugabe*. Erreferente zehatzik ez duena.
- *Pertsona-izenordain*. Pertsona gramatikalak azaltzen dituena. Euskaraz, arruntak edo indartuak izan daitezke

2.taula: Izenordainen sailkapena (Gorrotxategi, 2009)

IZENORDAINAK	Pertsona Izenordainak	Arruntak	<ul style="list-style-type: none"> • ni, hi, zu, gu, zuek. • berori (errespetuzkoa)
		Indartuak	<ul style="list-style-type: none"> • neu, heu, zeu, geu, zeuek
	Izenordain zehatzugabeak	Galdetzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • nor (nortzuk) • zer (zertzuk) • zein (zeintzuk)
		Galdetzaileetatik eratorritakoak	<ul style="list-style-type: none"> • (nor) inor, norbait, edonor... • (zer) ezer, zerbait, edozer... • (zein) edozein, ezein, zernahi...
	Bihurkariak	<ul style="list-style-type: none"> • izenordain indartua +burua (neure burua, heure buruak, geure buruari...) 	
	Elkarkariak	<ul style="list-style-type: none"> • elkar (elkarrekin, elkarrentzat, elkarrengana...) • bata bestea 	

Lehenengo multzoan, pertsona izenordainak daude, eta arrunten eta indartuen artean bereizten dira. Pertsonal arruntak, *ni, hi, gu, zu, zuek*, jendea izendatzeko erabiltzen dira bakarrik. Adibidez: *ni mendian ibili naiz; gu gara liburu honen idazleak*. Izenorde hauek, deklinabide kasuak hartzen dituzte. *Ni* izenordainaren noren kasua *nire* da. Indartuei dagokienez, honako forma hauek daude, *ni-->neu, hi-->heu, gu-->geu*, e.a. Forma indartuak normalean galderetan erabiltzen dira. Adibidez, *“lan hau nik neuk egin behar dut?”*. (Gorrotxategi, 2009)

Bigarren multzoan berriz, izenordain zehaztugabeak agertzen dira eta horien artean galdetzaileak eta galdetzaileetatik eratorritakoak. Galdetzaileak kontuan izanik, *nor zein* eta *zer* formak daude. *Nor* eta *zein* izenordainek pertsonentzat balio dute eta galdetzeko erabiltzen dira. Adibidez, “*nor da mintzo?*”; “*zeinek erran du?*”. *Zer* formari dagokionez berriz, pertsoneri zuzentzen ez zaienean erabiltzen da. Adibidez, “*zer marrazten duzu?*” Galdetzaileetatik eratorritakoak berriz *nor*, *zein* eta *zer* formatik sortutako izenordain mugagabeak sartzen dira, hala nola, *norbait*, *nor edo nor*, *edonor*, *zerbait*, *zer edo zer*, *edozer*, *edozein*, *zeinahi* eta *ezein*.

Hirugarren multzoan, izenordain bihurkariak daude. Bihurkariak, pertsona bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean, bigarren izen sintagma izenordain bihurkaria bihurtzen da. “Nire, hire...+ burua” formula erabili behar da. Adibidez: “*Nire burua egunero ispiluan ikusten dut*”. Azken multzoari dagokionez, izenordain elkarkariak daude. Izenordain hauek elkarrekikotasuna adierazten dute. Bi elementu behar dira gutxienez elkarkaria osatzeko. Adibidez, Oihana Peioren ondoan dago. Peio Oihanaren ondoan dago. Beraz, Oihana eta Peio *elkarren* ondoan daude.

1.2 Aditzak

Beste kohesio mekanismo bat aditzak dira, batez ere, haur zer nolako aditz denbora erabiltzen duten esaldietan eta testuan zehar eta denboraren mantentze hori ematen den edo aldaketak egiten diren, hau da, testuan dagoen aditz denbora da. Hori azaldu aurretik, aditza zertan datzan eta aditz motak azalpena adieraziko da. Aditzaren ezaugarriekin hasi aurretik, aditza zertan datzan zehaztuko da.

Aditza, aditz sintagmaren nukleoa da eta semantikaren ikuspuntutik, ekintza, egoera edo gertaera bat adierazten duen hitza; eta sintaxiaren ikuspegitik berriz, perpauseko denbora eta pertsona.

Ezaugarriei dagokionez, euskal gramatikan, aditzak itxura ezberdinak har ditzake (Ikas, 2008) artikularen arabera

- Aditz oina.
- Partizipioa
- Aditz izena

- Aditz jokatua: forma perifrastikoa eta forma trinkoa.

Hala ere, egingo den proposamena aditzaren aldian zentratzen denez batez ere, aditzaren aldiari dagokionez dauden hiru moduak zeintzuk diren adieraziko dira.

1.2.1 Aditzaren aldia

Aldiari dagokionez, iragana, geroaldia eta oraina bereizten ditugu. Beraz aldiak, oraina, geroaldia eta iragana bereizten digu eta horren informazioa aditz laguntzaileak edo aditz trinkoak ematen digu. Adibidez, aditz laguntzaileei dagokionez (Ikas, 2008):

aita etxera etorri da

aita etxera etorri zen.

Trinkoetan berriz,

aita etxera dator

aita etxera zetorren

Aldia zein den finkatzeko marka ezberdinak gehitzen zaizkio aditz nagusiari. Horri aspektua deritzo. Atzizki ezberdinak ager daitezke, “i”, “du” edo “tu” e.a. Aspektuak prozesu bat adierazten du, prozesu hori burutua, burutugabea edo geroa izan daitekeelarik. Burutuari dagokionez, jadanik gertaturiko gauza bati egiten dio erreferentzia eta partizipioa erabiltzen da; adibidez, aitak kotxe berria erosi du. Geroari dagokionez, gertatu behar den zerbait adierazten du, horretarako *-ko* edo *-en* atzizkia gehitzen zaie, esaterako, bihar nire ama etorriko da. Atal honekin bukatzeko, burutu gabea dugu, honek ekintza ez dela burutu adierazten digu eta *-tzen* atzizkia gehitzen zaio, esaterako, *“liburuak ekartzen ditu”* edo *“hamar kilo gasna saltzen ditu”*.

Esaldi independenteetan aditz formak esaten den momentuko denborarekin erlazionatzen dira, esaterako, Mikel etxera joan zen. Hemen, aditz formak zein denboretan hitz egiten duen jakiteko informazioa ematen digu.

Aditz aldien korrelazioa, dependentzia fenomeno bat da, non menpeko esaldietan agertzen diren bi aditz forma edo gehiagoren arteko interpretazioan erlazio sintaktiko bat egon behar duen.

Fenomeno hau agerian uzten da, alde batetik, aditz formak esanahi ezberdin har dezaketelako esaldi independentean dagoenean edo menpeko esaldi batean. Bestetik, esaldi independentetan agertzen diren aditz formak ez dira menpeko esaldietan agertzen eta azkenik, aditz formen artean, interpretazioaren dependentzia gradua ezberdina da menpeko esaldiaren arabera.

Sintagma batean, menpeko esaldietako gertaera adierazten duten aditz formak esaldi nagusietako gertaerek adierazten duten aditz formekiko denbora lineal batean jartzen dira, hau da, elkarren artean koherentzia bat egon behar du. Menpeko esaldiko gertaeraren aditz denbora esaldi nagusikoaren aurrekoa edo aitzinakoa izan daiteke, horretaz gain, geroagokoa edo aldi berekoa izan daiteke.

Aitzinakoari dagokionez, menpeko esaldiko gertaera erreferentziaren denboraren (esaldi nagusia) antzinakoa da, esaterako, *Mikelek esan zuen, gurasoek kotxe berri bat zeukatela*. Adibide honetan, menpeko esaldiko aditza (zeukatela) esaldi nagusiko aditzarekin (esan zuen), konparatuz, aurretik gertaturiko zerbait adierazten du, beraz, aurretiazkotasuna adierazten du.

Aldiberekotasunari dagokionez, menpeko esaldiko gertaera erreferentziaren denboraren berdina da, adibidez, *Mikelek esan zuen, gurasoek kotxe berria dutela*. Adibide honetan, menpeko esaldiko aditza (dutela) esaldi nagusiko aditzaren (esan zuen) aldi bera aurkezten du, beraz aldiberekotasuna adierazten du.

Geroaldiari dagokionez, menpeko esaldiko gertaera erreferentziaren denboraren ondorengoa da, adibidez, *Mikelek esan zuen, kotxe berri bat izango dutela*. Adibide honetan, menpeko esaldiko aditza (izango dutela) esaldi nagusiko aditza (esan zuen), baino beranduago gertatzen den zerbait adierazten du.

2. UMEEN GARAPENA BI ALDERDIETAN: ERREFERENTZIA MEKANISMOAK ETA ADITZEN DENBORA.

2.1 Erreferentzia mekanismoen garapena

Hizkuntzalari askoren esanetan umearen sei urteak hizkuntzaren garapenaren momentu klabea da. Umeak jadanik lexikoaren errepertorio zabala dauka eta esaldi

konplexuak sartzeko gai da. Horretaz gain, edozein pertsonekin elkarrizketa bat mantentzeko arazorik ez dauka. Hala ere, gaitasun diskurtsiboen garapena, narrazioa, deskripzioa eta argumentazioa bezala, eskola garai osoan ematen da. Gainera, ikasleak eskola garaian testuak eraikitzeke egitura ezberdinen ezagutza garatzen joaten dira, hala nola, morfosintaxian egitura pasiboa, menpeko baldintzazko hipotetikoak, menpeko erlatibozko esaldiak, bai eta erlazio erreferentzialak ere. Beraz, haurra handitzen doan heinean bere sintaxia elaboratzen doa (Ortega, 2007)

Lehenengo puntuan aipatu bezala mekanismo erreferentzial anitzak daude, eta lan honi dagokionez, garapena azaltzeko hiru bloke ezberdin hauek azpimarragarriak dira.

1. Anafora nominalak
2. Anafora pronominalak
3. Aldagaiak (erreferentzia adierazpenak)

Anafora nominalei dagokionez, bi mota ezberdintzen dira batez ere: leialak eta ez leialak. Leialei dagokionez, testuan aldeztu aurretik aurkeztu den erreferente bati erakuslea edo artikulua mugatua gehituz gero erreferentzia egiten denean, anafora leiala deritzo. Esaterako, *kamioi bat* → *kamioia edo kamioi hori*. Ez leialak berriz, erreferentea eta horri erreferentzia egiten dio anafora ezberdina denean ematen da, hala nola, *txakur bat* → *animalia bat, ugaztun bat e.a.* Anafora pronominalak berriz, erreferente bati erreferentzia egiteko izenordainak erabiltzen ditugu, hala nola, lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako izenordainak, izenordain genitiboak, zehaztugabeak, elkarkariak e.a. ditugu. Bukatzeko, azken blokean elementu lexiko osoak sartzen dira, nahiz arruntak, bereziak edo sintagma luzeak.

Lehenengo bi blokeen ezaugarriarik adierazgarriena koerreferentzia printzipioa da, hau da, elementu horiek jartzeko aurretik aipatutako erreferente bat egon behar du, mekanismo hauen ulermena ahalbidetuz.

Ikerketa ezberdinetan erakusten denez, umeei emaitza hobekien lortzen dituztela nominalak, dituzten esaldiak interpretatzean esaldi pronominalak interpretatzean baino (Jakubowicz, 1984; Wexler-Chien, 1985 eta Solan, 1987). Horretaz gain, anafora nominalak bihurkariak hobekien maneiatzen dituzte izenordainak baino. Hala ere, izenordea haur ekoizpen linguistikoetan oso adin goiztiarrean agertzen da, ia lehen

hitzak sortzearekin batera, nahiz eta bere erabilera egokia beranduago ematen den. Izenordearen erabileraren hasiera eta ekoizpen zuzena bere konplexutasunaren araberakoa da. Horrela, hasieran, umeak 20 hilabete inguru dituenean, izenorde demostratibo singularrak eta lehen eta bigarren pertsonako izenorde pertsonalak erabiltzen dituzte. Zehaztugabeak berriz aurrerago agertzen dira. Horrela ba, haurrak hasieran izenordeak deitiko funtzioan erabiltzen dituzte, aurrerago funtzio anaforiko batekin erabiltzen dituztelarik (Shum, 1993).

Beraz, elementu anaforiko hauen erabilpena berandu arte ez da ematen, hau da, elementu hauen sartzea eta mantentzea eskola urteetan zehar ematen da, gauza konplexua delako eta ondorioz, ikasleek hau barneratzeko denbora behar dute. Bartlett (1984) eta Hickmann eta Schineiderrek (1993) ziotenez, ikasleek pertsona izenordainen erabilera egokia hamaika hamabi urtetan ematen dute. Beste ikerketa batzuk (Karmiloff-Smith, 1979, 1985, 1992) adierazten dute haurrek ez dutela mugatzaileen azpi-sistema zortzi bederatzi urteak arte kontrolatzen.

Barneratzeko denbora luze honen barruan, elementu anaforikoen forma eta funtzioak barneratzeko erabiltzen da, baita hauen erabilera *extralinguistikoaren* eta *intralinguistikoaren* arteko ezberdintasuna ikasteko ere. Elementu hauek esaldi mailan eta diskurtso mailan jarduten dute, hau da, funtzio anitzekoak dira.

Elementu anaforikoak pertsonari erreferentzia egiteko erabiltzen dira, baina baita denbora eta espazioari ere. Horretaz gain, bi erabilera ezberdin bereizten dira, deitiko (testuinguru linguistikotik kanpo dauden elementuei erreferentzia egiten die) eta anaforikoa (testuinguru linguistikoan dauden elementuei erreferentzia egiten die). Badirudi, erabilera anaforikoa deitikotik abiatuta eraikitzen dela, beraz, hasieran elementu hauek erabilera *extralinguistiko* bezala erabiliko dira eta ondoren *intralinguistiko bezala*. Hala ere, nahiz eta erabilera ezberdinak izan, umeek bi erabilera hauek menperatu behar ditu kompetentzia linguistiko osatu bat izateko. Erreferentziarekin jarraituz, bederatzi urte arteko ikasleek erabiltzen dituzten klitikoak batzuetan testuan dagoenari erreferentzia egin beharrean testuinguruan dagoenari erreferentzia egiteko erabiltzen dute. Hau gertatzen da ikasleek irudiekin duten erlazio estuarengatik. Hau da, irudian ikusten dutena deskribatzen dutelako askotan erreferentzia esan beharrean horren klitiko erabiltzen dute kanpoan geratzen den

zerbaiti erreferentzia eginez. Adin horretatik aurrera berriz klitikoaren erabilerak testuaren barruko erreferentzietan erreferentzia egiten die.

Umeen eboluzioarekin jarraituz, García-Sotok (1996, 1999) erakusleen eta artikuluen erabilpenaren garapena zehaztu zuen. Erakusleei dagokionez, lau eta bost urtekoek eta helduek erakusleak erabiltzen dituzte gehienbat baina funtzio deitikoarekin ez anaforikoarekin. Zazpi, bederatzi eta hamaika urtekoek berriz erakusleen erabilpen urria egiten dute. Artikuluaren erabilerari dagokionez, antzeko zerbait gertatzen da. Lau eta bost urtekoek erreferenteak artikulua zehaztua duten izen-sintagmen bitartez sartzen dituzte. Zazpi, bederatzi eta hamaika urtekoek berriz artikulua mugagabeak eta definituak dituzten izen sintagmen konbinazioen bitartez.

Erreferentearen sartzean edo aurkezpenean zentratuz, haur narrazioetan artikulua zehaztu edo zehaztugabeen bitartez edo forma nuluen bitartez egiten da. Hala ere, bederatzi urteak arte umeak ez dira erakusle zehaztugabeak erabiltzen hasten.

Sole-k, bere aldetik, azaltzen du umeek erreferentzietan eusteko izen-sintagma zehaztuak erabiltzeaz gain izenordainak edo forma nuluek erabili ahal dituztela (Sole, et al., 1998, Serra et al.-ek aipatua, 2000, 467. orr.). Bederatzi urte baino gutxiago dituzten umeak "subjektu tematikoaren estrategia" erabiltzen dute, hau da, izenordea erabiltzen dute subjektu bezala protagonistari erreferentzia egiteko, honek nahastea sor dezake beste pertsonaiak izen-sintagma zehaztuen edo forma baliogabeen bitartez adierazten dituztelako. Ume helduek berriz, estrategia anaforikoa erabiltzen dute, hau da, izenordainak erabiltzen dituzten erreferentearen erreferentzia mantentzeko.

2.2 Aditzaren aldiaren korrelazioaren garapena

Jakina da hizkuntzetan esaldi guztiek denbora bat dutela. (Serra et al, 2000) Gure hizkuntzan, denbora edo aldia aditzaren bitartez adierazten da. Hala ere, badira aldia adierazten ez dituzten aditz motak, hala nola, forma ez mugatuak (ez pertsonalak). Forma hauek ez daukate aldiaren marka morfologikorik, baina horrek ez du esan nahi aldi bat adierazten ez dutenik; forma hauek mendeko aldi bat daukate, hau da, forma hauek ezin dute esaldi independenteetako nukleo bezala jardun. Beraz, ze testuinguruetan aurki ditzakegu forma hauek? Batez ere menpeko testuinguruan aurki

ditzakegu, hala nola, klausula txertatuetan edo sartuak edo esaldi nagusiko menpeko esaldietan.

Forma mugatuak berriz, erreferentziaren ikuspuntutik independenteak edo askeak dira. Hauek dituzten denborazko hizkiengatik autonomoak izatea egiten dute. Forma hauek, deitikoki, esaldiko egoerari zuzenean lotuz edo anaforikoki, enuntziatu berean ager daitezkeen denborazko adierazpenetara lotuz funtziona dezakete.

Jakina badakigu, haurrek infinitiboak oso adin goiztiarrean erabiltzen hasten direla. Infinitibo hauek helduentzat beste aldien menpe daude, umeentzat berriz independenteak balira bezala funtzionatzen dute. Haurrentzat forma hauek testuinguru ezberdinak sortzen dituzte, non forma horiek gramatikalak eta egokiak diren eta denbora korrelazio bat sortzen duten. Testuinguru horietako bat, galdera erantzunak dira. Hala ere, beste forma ez mugatu batzuk eginkizun bera bete dezaketen, gerundioek eta partizipioek zehazki. Azalpen honen adibideak honakoak izan daitezke:

- *¿Qué quieres?*
 - *Cantar.*
- *¿Qué ha pasado?*
 - *Escapado.*
- *¿Qué hace este niño?*
 - *Durmiendo*

Ikusi dugun bezala, erantzun egoki bat sortzen dute forma hauek, hala ere, aditz denbora zein den jakiteko, galderara jo behar dugu. Ondorioz, forma mugagabeek duten dependentzia modu argi batez ikus dezakegu. Aditz denborari dagokion garapena berriz, estadio ezberdinetan ematen da. Horretarako, Weistek honako hau planteatu zuen (1986):

3. taula: Denboren sistemaren garapeneko estadioak (Weist, 1986).

1.estadioa	H ¹	Aldirik gabe
2.estadioa	E-Hrekiko erlazioan	Interpretazioa deiktikoak soilik
3.estadioa	(E=R) Hrekiko erlazioan	Forma deiktikoak eta anaforikoak
4.estadioa	E R-rekiko erlazioan eta R Hrekiko erlazioan	Aldi konposatuak

Weistek dio umeak hitz egiten hasten direnetik ia bost urteak bete arteko garapena lau estadioetan bereizten dela. Hasierako estadioan hurrek soilik hitz egiten den denbora hautematen dute. Bigarrenean berriz, erreferentziaren denbora eta hitz egitearen denbora erlazioan jartzen dute. Hirugarrenari dagokionez, erreferentziaren denbora zein gertakizunaren denbora, hitz egiten den denborarekin erlazionatzen dute. Eta azkenengoan, erreferentziaren denbora gertaeraren denborarekin erlazionatzen dute eta erreferentziarena hitz egiteko denborarekin. Horretaz gain, denboraren sekuentzia, mota ezberdinetakoa izan daiteke, aurreko hiru egoera (H,E eta R) kontuan izanik. Gerta daiteke, gertaeraren eta erreferentziaren denbora aldi ezberdinetakoak izatea, eta bat bestea baino iraganagokoa izatea. Eta gainera, hitz egiten den aldiaren ezberdina. Honi, iragan erreala deritzo, non aldiek ez diren berdinak. Bestetik, gerta daiteke, egoeraren eta erreferentziaren denbora berdina izatea baina hitz egitearen denboraren ezberdina, erreferentzia eta egoera iraganekoa izanik. Kasu honetan, geroaldia ezinezkoa litzateke. Korrelazio hau ematen da *verba dicendi* izeneko aditzekin, hau da, sarrera bikoitzeko irakurketa ahalbidetzen dutenak; esaterako, *esan*, *komentatu*, *adierazi*, *kontatu*, *gehitu* e.a.

¹ E= gertaeraren denbora; H=hizketaldiaren denbora; R=erreferentziaren denbora.

² Zenbakia azpi indize bezala agertzen da, umeek jakiteko zein multzotik hartu behar duten hutsunea

Weistek (1986) planteaturiko garapen hori ikusi ondoren, kontuan izan behar da aldiaren jabekuntza egiteko umeek aurreko estadioetan izan duten jarraipena, non alderdi horretan garapenaren isla egiten duen.

Kohesioan aditz aldiak duen paperaz beste alderdi bat dugu denboraren sekuentzia, hau da, klausula nagusiko eta menpeko esaldiaren artean aditzak duen erlazioari buruz ari da. Hollebrandsek, denboraren sekuentzia aztertzeko, prozedura bat diseinatu zuen non umeek iragana txertatuta zegoen eraikuntzen interpretazioa egin behar zuten. Zuzen burutzeko irakurlea konturatu behar zen iraganeko esaldi bat erabil daitekeela orainaldian esandako eginkizun bati erreferentzia egiteko. Bere helburua zen egiaztatzea umea gai dela sistema konplexu hori interpretatzeko (Hollebrands, 1997, 1998, Serra et al-ek aipatua, 2000, 474 or.). Ikerlan hau egiteko, ikerlariak, sei bederatzi urte bitarteko 23 haur holandarrek eta haurrak kontrolatzen zituzten 44 helduk denboraren sekuentziaren inguruan egindako azterketa baten ondorioak agertzen diren. Alde batetik, gazteenen artean geroagoko irakurketarantz permisibitate handia zegoela egiaztatzen zen, beraz, adinaren faktorea garrantzitsua da interpretazio hori egiteko momentuan. Umeak ez baitziren gai hori egiteko eta helduak berriz bai. Bestetik, adinaren handitzearekin batera, aldiberekotasuneko eta lehenagokotasuneko irakurketen onarpen maila handitzen zihoazen. Beraz, ateratako bi ondorio hauekin, ikus daiteke nola umeek denborazko interpretazioak egiteko arazoak dituzten. Bukatzeko, haurrak aditzaren iragana ongi ulertzen dute, baina ez denbora erreferentziaren aldaketak.

3.ERREFERENTZIA MEKANISMOEN ETA ADITZ DENBORAREN LANKETA METODOAK

3.1 Erreferentzia mekanismoak eta aditza lantzen duten metodo ezberdinen azterketa.

Bi alderdi horiek aztertzeko erabiliak izan diren liburuak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko liburuak izan dira, bertan hasten baitira batez ere, besteen artean, aditzaren eta izenordainen lehen lanketak egiten. Lehenengo zikloan batez ere garrantzia

ematen zaio irakurriari eta horren ulermenari, ondorioz, gramatikaren lanketa sistematikoa hurrengo zikloan lantzen hasten da.

Esan bezala, bigarren zikloko, hirugarren eta laugarren mailako liburu ezberdinak landu dira, hauek argitaletxe ezberdinetakoak izanik, hala nola, Ibaizabal, Anaya Haritza, Santillana, Giltza eta Elkar.

Azterketa idazten hasi aurretik, hustuketa bat egin eta gero, ikusten da liburu guztiek ez dutela berdin lantzen batez ere erreferentzia mekanismoen atala. Aditzari dagokionez berriz, antzeko lanketa egiten dela ikusten da, hau da, aditz mota berdintsuak lantzen dira orokorrean, nahiz eta lantzeko modua batzuetan ariketa zehatzen bitartez egiten den eta besteetan berriz testuen bidez.

Liburuaren azterketarekin hasiz, lehenengo liburuan dauden atal ezberdinen aipamena agertuko dela, hau da, deskribapen orokorra, eta gero aditzaren eta erreferentzia mekanismoen atalean zentratuko da gehienbat. Horretaz gain, nahiz eta argitaletxe berdinekoak izan hirugarren eta laugarren mailako liburuak, aditzaren eta erreferentzia mekanismoen deskribapena batez ere berezia agertuko da, maila bakoitzean lantzen dena argi utziz.

3.1.1 Ibaizabal argitaletxea

Lehenengo azterketan Ibaizabal argitaletxeko (Ibaizabal taldea, 2012) liburuak aztertuko dira. Hiru liburu ezberdinez osatutako bilduma da, euskara liburu eta gramatika eta hizkuntza koadernoak, hain zuzen ere.

Atal ezberdinen deskribapenarekin hasteko, euskara liburuari dagokionez, hiru atal nagusi ezberdintzen dira, hala nola, ahozotasuna, idazmena eta irakurmena. Ahozotasunaren barruan, komiki bat azaltzen da eta horren inguruko galdera batzuk daude ahoz lantzeko. Idazmenari dagokionez, eredu bat azaltzen da eta horren inguruko ariketa ezberdinak egin behar dituzte idatziz, gero idazlan bat egiteko erabiliko direnak. Azkenik, ulermenari dagokionez, irakurgai bat agertzen da eta ondoren horren inguruko ulermen galderak, lexikoa gramatika eta ortografia. Hizkuntza eta gramatika liburuari dagokionez, euskara liburuan lantzen denaren sakontzea egiten da.

Atal orokorra adierazi ondoren, liburu bakoitzean aztertu beharreko bi alderdiren lanketa zein den azalduko da.

Hirugarren mailako liburuan, aditzei dagokienez, batez ere deklinabideari erreparatzen zaio, hori egiteko ariketa ezberdinak daudelarik, hala nola, esaldiak osatu aditz zuzena erabiliz, testuko hutsuneak bete aditz egokia kokatuz e.a. Hala ere, hemengo kasuan gehien aztertu behar duguna aldia da, beraz aztertzen egon ondoren aldia lantzeko ariketa solte batzuk agertzen dira, hala nola, esaldiak edo testu zatitxoak orainalditik lehenaldira pasatzea. Bertan, ikusi behar da ea ikaslea gai den modu egokian bi aldi horiek lantzeko. Bukatzeko, nahiz eta ariketa espezifikoak izan aldia lantzeko, orokorrean orainaldia eta lehenaldia lantzen dutela nahasturik, hau da, ariketa berean bi aldiak lantzen dituztela, esaterako, esaldiak osatu behar dituztenean bi aldien horien lanketa ematen da, esaldi batzuk orainaldian osatu behar dutelarik eta beste batzuk iraganean. Baina, ariketa hauen helburua batez ere bi aldiak ongi erabiltzea eta barneratzea da, ez bi aldien artean izan daitezken erlazioak lantzeko.

Lexikoari dagokionez berriz, batez ere lantzen den, izenondoak, antonimoak eta sinonimoak dira, hauek lantzeko ariketa ezberdinak planteatzen direlarik. Erreferentzia mekanismoei dagokionez, ez dago lexiko hau lantzeko ariketa zehatzik, hala ere, oinarritzkoak diren izenordainak testuetan agertzen dira, eta egin beharreko idazlanetan islatzeko aukera dute. Hala ere, aukeratzeko ariketa batean izenordain ezberdinak lantzen dituztela batez ere pertsona izenordainak (*zuek, haiek...*) lantzeko.

Laugarren mailako liburuari dagokionez, aditzaren modu ezberdinak lantzen dituzte, ahalera, agintera eta baldintza. Lanketa hau ariketa ezberdinen bidez egiten dute, hala nola, esaldiko hutsuneak bete, ikasleka beraiek esaldiak sortu e.a. Esatekoa da, aldiari dagokionez, orainaldia eta lehenaldia lantzen dutela batez ere, horretarako, hirugarren mailako liburuaren antzera, hutsuneak betetzeko ariketak, hau da, esaldi bat eman bertako aditza ez dagoelarik eta ikasleek hutsune horietan egokiak diren aditzak sartu behar dituzte, beti ere aldia kontuan izanik. Horretaz gain, aldien aldaketa egin behar den ariketak daude, hala nola, iraganeko pasarte bat orainaldira pasatzea edo alderantziz. Beraz, maila honetan ikusten dugu aditzaren ezagutza maila deklinabidetik haratago doala.

Lexikoari dagokionez, hirugarren mailan lantzen den antzeko lexikoa ematen da, esaterako, izenondoak, sinonimoak eta onomatopeiak. Gainera, erreferentzia mekanismoak lantzeko zehar ariketak daude, hau da, ariketan nondik, nora eta non galderak lantzen dira, baina ariketa aztertzen hastean ikusten da horretara, honetara bezalako mekanismoen lanketa egiten hasten direla.

3.1.2 Zubia Santillana argitaletxea.

Bigarren liburua Zubia Santillanako “*Adi-Adi euskarari*” metodoaren liburua da (Marín, 2008). Ikasleek hiru liburuxka dituzte hiruhileko bakoitzeko bat. Azalpen orokorrari dagokionez, zortzi atal ezberdintzen dira: irakurmena eta ulermena, komunikazioa, lexikoa, gramatika, ortografia eta idazmena. Atal bakoitzean, ariketa ezberdinak lantzen dituzte, beti ere atal horri loturikoak, hau da, esaterako komunikazioaren atalean, batez ere ulermena lantzen da, horretarako ariketa ezberdinen bidez, esaterako testua irakurri ondoren gezurra eta egia bezalako ariketak. Beraz, atal bakoitzean, ariketa multzo ezberdinak dauden atalaren lanketa bultzatzeko.

Azalpen espezifikoarekin jarraituz, eta hirugarren mailako liburuari dagokionez, aditzaren atalean, ezaugarri ezberdinak lantzen dituzte, hala nola, aditz trinkoak eta perifrastikoak. Gainera, aditzaren informazioari dagokionez, aldia eta aspektua lantzen dira eta motei dagokionez berriz, agintera eta baldintza.

Aurreko liburuan ez bezala aditzak adibidez testu txikien bidez lantzen dira, batez ere. Horretaz gain, esaldien berridazketak lantzen dira, baita hutsuneak betetzea ere. Gainera, aldia lantzeko irakurritako testuetako aditzak erabiltzen dituzte, horiek lanketa ezberdinak egiten dituztelarik, hala nola, sailkapenak, esaldien sortzeak, hutsuneak betetzea e.a. Horretaz gain, galdera ezberdinen bitartez aldi ezberdinak erabiltzera bultzatzen da, esaterako, *zer egin zenuen atzo Jokinek?, nora joan da gaur Jokin?, eta zer egingo du bihar?* mota hauetako galderen bidez, lortu nahi da ikasleak iragana, orainaldia eta etorkizuna lantzea.

Lexikoa kontuan izanik, hirugarren mailan oraindik ez dituzte izenordainak lantzen, izenondoak, esapideak, sinonimoak, antonimoak e.a. Hala ere, erreferentzia mekanismoaren funtzioa betetzen duten baliabide anaforiko batzuen lanketa egiten

dute batez ere, aditzondoena eta determinatzaileen artean, erakusleena hain zuzen ere.

Erakusleei dagokionez, honako hauek erabiltzen dituzte: hau, hori, hura, hauek, horiek eta haiek. Horretarako, ariketa ezberdinak planteatzen dituzte, hala nola, esaldietako hutsuneak erakusle horiekin betetzea, edo esaldiak egitea, marrazkiak kontuan izanik.

Aditzondoan lanketari erreparatuz, mota ezberdinen lanketa egiten dute batez ere, hala nola, denbora, lekua, modua maila eta iritzi motako aditzondoak. Baina hau lantzen hasi aurretik, ikasleek dakitena islatu behar dute, horretarako marrazkiak agertzen dira, eta ikasleek bertan gertatzen dena aditzondo bat erabiliz adierazi behar dute. Hori egin ondoren, testu bateko aditzondoak azpimarratu behar dituzte eta motaren arabera sailkatu. Azkenik, aditzondoa esaldi batekin lotzeko eta testu bateko hutsuneak aditzondoekin betetzeko ariketak daude.

Laugarren mailari dagokionez, aditza kontuan izanik, hirugarren mailakoaren sakontze bat egiten da. Aditz mota ezberdinen lanketa egiten jarraitzen da. Aditzaren informazioa lantzen jarraitzen da, batez ere orainalditik lehen aldira pasatzeko ariketak daude, baita esaldietan aditzak zein diren identifikatzeko ariketak ere. Bukatzeko, ahalera eta ezintasuna lantzeko, ariketa ezberdinak planteatzen dira, hala nola, galderak erantzutea, erantzun egokia aukeratzea, esaldiak beste modu batean esatea eta berridazketak batik bat.

Erreferentzia mekanismoei dagokionez, liburu honetan izenordainen, determinatzaileen eta aditzondoan lanketa egiten da. Izenordainei dagokionez, batez ere, izenordain arruntak eta indartuak, ni, nik, neu, neuk, inor norbait, zerbait ezer edozer e.a. motako izenordainak ditugu. Hauen lanketa egiteko, ariketa ezberdinak planteatzen dira. Horien artean, irudiak aztertzea eta galderak erantzutea, izenordainak erabiliz esaldiak idaztea, izenordain indartuen bidez galderak erantzutea, hutsuneak betetzea, erantzun egokiak aukeratzea eta esaldiak egitea. Determinatzaileei dagokionez, erakusleak lantzen dituzte baita zenbakitzaileak ere. Erakusleei dagokionez, hauek, haiek, horrek, horretan e.a. bezalako erakusleak lantzen dira ariketa ezberdinen bidez, hala nola, esaldiak ordenatzeko, hutsuneak betetzeko edo identifikazio ariketen bitartez. Aditzondoei dagokionez berriz, mota ezberdinetako aditzondoak lantzen jarraitzen dituzte, horretarako, hasieran sailkapen bat egiten dute

eta gero ariketa ezberdinen bidez sailkapen horren sakontzea egiten dute. Ariketa ezberdinak daude, esaterako, esaldietan aditzondoan identifikazioa, erantzuna aditzondo baten bidez ematea, eta hutsuneak betetzea.

3.1.3. Anaya Haritza argitaletxea

Hirugarren liburua, Anaya Haritza argitaletxeko euskara liburua da (Etxeberria, Garay, Romero, 2012). Ikasleek, euskara liburua eta koadernoak dute.

Unitate bakoitzak atal ezberdinak ditu, hala nola, lehen bi orrialdeetan, irudiz hornitutako irakurgai bat dago, bigarren atalean, *“Petra kuletra”* atzean zazpi letra deritzon atala da non hasierako irakurgaiaren inguruko ulermen eta idazmen galderak ageri diren. Horretaz gain, entzumen testuak ere lantzen dituzte. Hirugarren atalari dagokionez, *“Hitza hitz”* atala dugu, bertan unitate bakoitzeko gaiaren inguruko hiztegia lantzen da. Jarraian, *“Lumak busti”* atala dago, bertan ortografia arazoak saihesteko oinarriko ezaguerak azaltzen dira. Bosgarrenik, *“Josi eta josi hitzak”* atala daukagu, bertan gramatika arauak lantzen direlarik. Seigarren tokian, *“Berriketan pintto”* atala daukagu, bertan lehenengo bi orrialdeetan agertzen den gaiari buruzko zerbait sortu behar dute, beti ere ahoz. Bukatzeko, *“Saltsa-maltsa”* atala daukagu, non ikasleak unitatean lantzen den gaiaren inguruan zerbait idatzia sortu behar duen.

Atal orokorrarekin bukatu ondoren, hirugarren mailako liburua aztertuko da. Aditzari dagokionez, nor eta nork motako aditzak, nor eta nor-nork motakoak lehen aldian eta nor-nori-nork motako aditzak orainaldian eta lehenaldia lantzen dira. Horretaz gain, azkeneko unitatean aditzaren aldia lantzen da, iragana, orainaldia eta geroaldia. Mota hauetako aditz hauek guztiak lantzeko, ariketa ezberdinak daude, hala nola, galderak erantzutea edo idaztea, edo aukeraketa egitea. Horretaz gain, orainaldiko testu bat iraganera pasatzea, esaldiak iraganean eta orainaldian idaztea, sailkapenak egitea, hutsuneak betetzea e.a. Horretaz gain, pluralaren nozioa ere sartzen da hamaikagarren unitatean, horretarako taula bat osatu behar dute esaldia, lehenaldian orainaldian eta bi aldi horietan pluralean jarritz. Bukatzeko, hamabigarren unitatean aldi guztiak batera lantzen dituzten ariketak daude, hala nola, aditzen sailkapena egitea eta erantzun egokia aukeratzea batik bat.

Ikaslearen koadernoari dagokionez, liburuan agertzen den edukia finkatzeko ariketak agertzen dira batez ere.

Hirugarren mailarekin jarraituz, izenordainen lanketarik egiten ez dutela ikusi da. Hala ere, aditzondoan lanketa egiten da, batez ere denborazkoak (*lehen, maiz, iaz, laster, sarri, askotan, etzi, bihar e.a.*). Aditzondoak hiru multzotan sailkatu eta hori egin ondoren, bertan ikasitakoa praktika jarri behar dute horretarako iragarki bat prestatu behar dutelarik.

Laugarren mailako liburuan aditzaren atal kontuan hartuz, orainaldia eta lehenaldia lantzeko ariketak daude oraindik ere. Gainera, baldintza, ahalera eta agintera lantzeko ariketak daude. Bukatzeko, aditza indikatiboan lantzen da.

Aditzaren atalarekin bukatzeko, orainaldia eta lehenaldia lantzen jarraitzen dute maila honetan. Horretarako sailkapen ariketa bat planteatzen da, non ikasleak urdinez agertzen diren esaldiak orainaldiak edo lehenaldian sailkatu behar dituen. Gainera, ahozotasuna lantzeko azalpen testu bat ahoz sortzea e.a. Bukatzeko, aditza indikatiboan lantzeko ariketa ezberdinak daude.

Erreferentzia mekanismoei dagokienez, ez dute izenordainen lanketarik egiten, maila honetan, hala ere, leku eta denbora aditzondoak lantzen dituzte, hala nola, goian, alboan, gainean, azpian, orain arte, atzo, etzi, antzina, e.a. Horretarako sailkatzeko, hutsuneak betetzeko edo esaldia egiteko ariketak planteatzen dituzte

3.1.4. Elkar argitaletxea.

Hurrengo liburua Elkar argitaletzeko (Saenz, 2005) Txanela proiektuaren metodo da. Txanela, beste testuliburu guztiekin konparatzen bada, oso ezberdina dela ikusten da. Bilduma, ikaslearen liburua eta maila bakoitzeko bi lan koadernoaz osatuta dago. Txanelan batez ere proiektuen bidez lan egiten da, bertan arlo ezberdinak sartzen direlarik, esaterako, ingurunea, arte hezkuntza eta hizkuntza. Beraz, material globalizatu bat dela esan daiteke. Bigarren zikloko maila bakoitzean zazpi proiektu ezberdin lantzen dira, bertan atal ezberdinak daudelarik, besteak beste, komikiak, ulermen ariketak, idazteko ariketak, hitz egiteko ariketak e.a. Horretaz gain, bertan lantzen diren jarduera guztiak hasieran azaltzen den gaiarekin erlazionatuak daude. Adibidez, *“Ameriketara joan nintzen”* proiektuan agertzen diren ariketa ezberdinak edo

atal ezberdinak Amerikaren inguruan oinarritzen dira. Beraz, txanela proiektuan, ikusi ditugun argitaletxeetan ez bezala, aspektu ezberdinen lanketa modu bateratu batean egiten da, ondorioz, unitate bakoitzean lantzen ari den gaiaren testuingurutik kanpo ez dugu jarduerarik aurkitu.

Hasierako azalpena egin ondoren, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako liburuaren azterketa espezifikoa egingo da. Lehenik eta behin, ez da aditza modu zuzen batean edo ariketa espezifikoko batzuen bitartez lantzen. Guztia unitatearen gaiarekin lotutako ariketen bidez lantzen da, bigarren unitatean esaterako, Egiptori eta bertako hizkuntzari buruz ari da, eta aditzaren lanketa egiteko, adibidez, gure hizkuntzan, euskarari, aditza modu egokian nola erabili behar den ariketa dago. Horretaz gain, iragana eta orainaldia lantzeko ariketa ezberdinak daude, hala nola, testu bat aldiz aldatu behar dute, esaterako, iraganetik orainaldira, edo egunerokoa idazterako orduan bi aldiak modu egokian noiz erabili behar diren jakiteko ariketak.

Laugarren mailako liburua kontuan izanik, hirugarren mailakoaren antzekoa da. Aditzak testuinguru batean lantzen dituzte eta aurreko mailaren jarraipen bat egiten dute. Aditz mota ezberdinak lantzen dituzte, hala nola baldintza eta ondorioa.

Izenordainei dagokionez, oinarritzko izenordainak testuetan agertzen dira batez ere. Ez dira ariketen bidez barneratzeko eta ikasteko modu zuzen batean lantzen. Orokorrean lantzen dutena, izenondoak, konparazioak e.a. dira.

Bilduma honekin bukatzeko, proiektu hauek zikloka planteaturik daude, hau da, hirugarren mailako edukiak laugarren mailan landu eta sakontzen direla, baita berrikusi ere. Horren adibidea, laugarren mailako azken unitatea dugu, berrikusi unitatea. Bertan agertzen diren ariketa ezberdinak bi mailetako proiektuen ingurukoak dira. Orokorrean, ariketa guztiak unitatearen gaiarekin integraturik daude, eta beraz aditza lantzeko oso ariketa gutxi agertzen dira. Gauza berdina gertatzen da lexikoaren aldetik. Euskarari dagokionez, garrantzia ematen dio idazketari eta ulermenari, ondorioz, idazketak egiterakoan ortografiari garrantzia ematen zaio.

3.1.5. Giltza argitaletxea

Bukatzeko, landuko den azken argitaletxea Giltza argitaletxea da. Ikasleek euskara lantzeko argitaletxe honetan bi ale ezberdin daude maila bakoitzeko, liburua eta koadernoak (Arenaza Alvarez, 2012). Euskara liburuak atal ezberdinak ditu: unitatearen hasiera, non komiki bat agertzen den; jarraian ahozko komunikazioa lantzeko komikiarekin loturiko ariketa ezberdinak daude; irakurmena lantzeko ere irakurgaiak daude unitate guztietan eta horri loturiko ulermen galderak. Horretaz gain, komunikazio idatzizko atala dago, non, testuen lanketa egiten den, baita, ortografia, lexikoa, gramatika e.a. Bukatzeko, amaierako ataza bat dago, autoebaluazioa dena. Bertan, ikasleak ikasitakoa islatu dezake.

Azalpen espezifikoarekin hasiz eta hirugarren mailako liburua jorratuz, aditzaren atal landuz, hutsuneak betetzeko ariketak daude. Horretaz gain, aldia lantzeko egunerokoaren lanketa egiten da, hau da, lehen, orain eta gero nozioak lantzen dira, hau da, iragana, orainaldia eta etorkizuna. Beraz, aldiaren erabileraren sakontzea egiten dela ikus daiteke, batez ere errealtatean erabiltzen ditugun baliabideetan. Gainera, aukera egokiak hautatzeko eta hutsuneak betetzeko ariketak daude. Horretaz gain, aditzaren modu ezberdinak lantzen dira, hala nola, nor-nork, nor- nori eta nor-nori-nork.

Laugarren mailako aditzaren atala jorratuz, aditzaren ezaugarri ezberdinak jorratzeko ariketa desberdinak daude. Esaterako, pertsona markarekin loturiko aditzen lanketa egiten da, esaldiko subjektua lehen pertsonan badago aditza nola jarri behar den. Gainera, modu ezberdinak lantzen dituzte, hala nola, baldintza edo ahalera. Horretaz gain, hutsuneak betetzeko eta elkar lotzeko ariketak daude. Aldiari dagokionez, iragana lantzeko ariketa ezberdinak daude, adibidez, erantzun zuzena aukeratzeko edo hutsuneak betetzeko. Gainera, aldiak orokorrean lantzeko sailkapen ariketak daude, baita orainaldiko testuak iraganean edo alderantziz, idazteko testuak ere. Bukatzeko, azken unitatea kontuan izanik, geroaldia lantzen hasten dira, horretarako, ariketa ezberdinak planteatzen dituzte, esaterako, geroaldiko esaldiak osatzea hurrengo eguneko egitaraua osatuz. Horretaz gain, aukeratzeko ariketa ezberdinak daude, non ikasleak liburuko pertsonaiak esaten dituzten esaldietatik egokia dena aukeratu behar duten.

Erreferentzia mekanismoei dagokionez, argialetxe honek ez du ariketa espezifikorik jartzen izenordainak, aditzondoak, eta determinatzaileak lantzeko. Batez ere gehien lantzen dutenak sinonimoak eta antolatzaileak dira.

3.2. Metodoen azterketaren ondorioak

Behin argialetxe ezberdinetako Lehen Hezkuntza bigarren zikloko liburuak aztertu ondoren, ikus daiteke argialetxe bakoitzak metodo ezberdinak dituela aditza eta izen ordainak eta aditzondoak lantzeko. Hala ere, liburu guztiek lantzen edo planteatzen dituzten ariketak antzekoak dira, hala nola, hutsuneak betetzekoak, sailkapenak egitekoa, aldiak aldatzekoak e.a.

Baina aipatzekoa da, metodo batzuk garrantzi gehiago ematen dietela aditzaren ezaugarri batzuei beste batzuei baino. Santillana argialetxeak adibidez, nor-nork, nor-nori-nork e.a., hau da, aditz mota ezberdinak gehiago lantzen dituzte aditzaren aldia baino. Giltza argialetxeak esaterako, garrantzi handiagoa ematen dio aldiaren lanketari mota edo moduaren lanketari baino.

Beraz, ikus dezakegu, nahiz eta maila bereko liburuak izan modu ezberdin batean lantzen dutela aditza. Horretaz gain, liburu batzuk testuinguru batean lantzen dute aditza edo ikasleak eguneroko bizitzan erabil ditzakeen baliabideetan, esaterako egunerokoaren idazketan, gaiaren hasierako testu bati loturikoak eta beste batzuk berriz, ariketa solteen bitartez.

Horretaz gain, aipatu behar dut baliabide anaforikoen lanketa egiteko modu ezberdinak daudela. Zubia Santillanako liburuari dagokionez, aditzondoak, erakusleak eta izenordainak modu zuzen batean lantzen ditu, hau da, unitateetako gramatika atalean hiru baliabide anaforiko horiek lantzen dituzte. Beste batzuetan, aditzondoak eta determinatzaileak lantzen dituzte gehienbat, ariketa ezberdinen bidez. Hala ere, beste kasu batzuetan erreferentzia mekanismoak ez dituzte modu zuzen batean lantzen beste ariketen barruan agertzen direla. Beraz, atal hauen lanketa ere metodo bakoitzak modu ezberdinean egiten duela ikusi da.

Orokorrean, bi erreferentzia mekanismo horiek lantzeko ariketa solteak daude, eta baliabide bakoitza bere aldetik lantzen da. Horretaz gain, gehienbat hutsuneak

betetzea da helburu, esaldiarekin inolako korrelaziorik mantendu gabe. Beraz, hemen ikusi dezakegu, bost argitaletzeko metodo ezberdinek ez dutela ez baliabide anaforikoen pronominalizazioa ezta aditzaren aldiaren korrelazioa lantzen.

Honek agerian uzten du, gaur egun bi alderdi horien lanketa oso urria dela eskola mailan, ia landu gabe uzten dena. Horregatik, ikasleek horrelako ariketak egin behar dituztenean, zailtasun handiak izaten dituzte, ez baitute oinarrizko ariketen lanketarik egiten. Ondorioz, ikasleek testu bat edo esaldi konposatuak sortu behar dituztenean, askotan akatsak egiten dituzte erreferentziari dagokionez. Honen arrazoietakoa bat, ereduaren falta izan liteke, normalean testu liburuetara murrizten baita, kasu honetan euskararekin ikaskuntza eta ondorioz, pronominalizazioa eta aditz aldiaren koherentzia landu gabe uzten da neurri handi batean.

Horregatik, hurrengo kapituluan alderdi horren lanketa egiteko programa didaktiko bat proposatuko da, non ariketa ezberdinak egongo diren erreferentzia mekanismoen lanketa egiteko, eta bide batez ikasleek beharrezkoa duten prestakuntza garatzeko.

4. PROGRAMA DIDAKTIKOA

4.1 Justifikazioa:

Programa hau, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoekin aurrera eramango da, hirugarren eta laugarren mailakoekin zehazki. Programa didaktiko honek funtzio erakuslea izango dutela, hau da, programa honen bitartez erakutsi nahi da nola landuko diren euskara arloko aditzaren tempus-a eta erreferentzia mekanismoak. Lanketa batez ere euskararen arloan kokatuko dela, hau da, ez ditu arlo ezberdinak integratzen baizik eta euskararen alderdi batzuetan zentratzen da soilik. Alderdi horiek lantzea erabaki da ikusten baita ikasleek askotan zailtasun handiak dituztela batez ere testuen barruan baliabide anaforikoen bitartez hasierako erreferenteari erreferentzia mantentzeko baita testu osoan aditzaren aldiaren mantentzea egiteko ere.

Horretaz gain, euskarako testu liburu ezberdinen azterketa egin ondoren, ikusi da batez ere erreferentzia mekanismoetan ez dela lanketa handirik egiten, argitaletxe batzuetan lantzen ez direlarik. Horregatik guztiagatik, programa honen bitartez

ikasleek alderdi horiek sendotzea bultzatu nahi da. Horretarako, beraien ziklora egokituriko edukiak kontuan izanik ariketa ezberdinak planteatuko dira.

4.2 Oinarrizko gaitasunak

1.Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna: Gaitasun hau hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta autoerregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio. Bestalde, gaitasun honetako ezagupenek, trebetasunek eta jarrerak bidea ematen digute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak azaldu, hizketan aritu, zentzu kritikoa eta etikoa osatu, ideiak sortu, ezagupenak egituratu, solasari, ekintzei eta lanei koherentzia eta kohesioa eman, erabakiak hartu eta entzuten, irakurtzen eta ahoz nahiz idatziz adierazteko atsegina hartzeko, eta horrek guztiak autoestimua eta konfiantza garatzen laguntzen du.

4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala: Gaitasun hau informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzearekin bukatuta, barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua

baita.

7.Ikasteen ikasteko gaitasuna: Ikasteen ikasteko beharrezkoa da ikasteen hasteko trebetasunak izatea, eta baita nork bere helburuen eta beharren arabera gero eta modu autonomoagoan eta eraginkorragoan ikasteen jarraitzeak ere. Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Alde batetik, nork bere trebetasun intelektualen, emozionalen eta fisikoen eta haiek garatzeko estrategien kontzientzia hartzea, hala nola batek bere kasa eta bestelako pertsonen nahiz baliabideen laguntzaz zer egin dezakeen jakitea. Eta bestetik, motibazioa, autokonfiantza eta ikasteko atsegina sortzen dituen gaitasun pertsonaleko sentimendu bat izatea.

8. Autonomia eta ekimen pertsonala: Gaitasun honen osagaiak dira, alde batetik, elkarri lotutako balio eta jarrera pertsonal batzuen kontzientzia-hartze eta erabilera, adibidez, erantzukizuna, jarraikitasuna, autoezagutza eta autoestimua, sormena, autokritika, emozioen kontrola, hautatu, arriskuak kalkulatu eta arazoei aurre egiteko trebetasuna, hala nola beharrak berehala asetzeko premia atzeratu, akatsetatik ikasi eta arriskuak hartzekoa.

4.3 Helburuak

4.3.1 Helburu orokorrak

1. Eguneroko gaiekin loturiko ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea, jarduera sozial eta kulturalako testuinguru desberdinetan. .
5. Formatu konbentzionaletan, erakunde publiko edo pribatuekiko komunikazioan erabiltzen diren idazki mota desberdinak erabiltzea, eskolarekin eta eskola-jarduerarekin loturiko egoeretan.
10. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauetara buruzko ezagutze baliatzea modu egokian, koherentean eta zuzenean idazteko eta hitz egiteko, eta ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko.
11. Hizkuntzen erabilera sozial desberdinei buruz gogoeta egitea, balio-juzkuak eta aurreiritzi klasistak, arrazistak edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko.
12. Ikaskuntzarako abileziak eta trebetasunak barneratzea eta komunikazioari buruzko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

4.3.2 Helburu didaktikoak

1. Ikasleak aditzaren aldien arteko koherentzia egoki egitea jarduera ezberdinen bidez.
2. Ikasleak zenbait erreferentzia mekanismo (izenordeak, aditzondoak eta erakusleak) ezagutzea eta modu egokian praktikan jartzea.
3. Ikasleak euren artean lankidetzan aritzea eta bi alderdi horiek ikasteko dituzten estrategiak martxan jartzea.

4. Landuko diren alderdi horien aurrean jarrera positiboa aurkeztea eta dituen estrategiak erabiltzea.
5. Eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun testuetan bi alderdi horiek ongi menperatzen dituela islatzea.

4.4. Edukiak

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea

Hitz egitea eta hizketan aritzea

1. Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.
2. Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.
3. Esparru desberdinetan, jarrera positibo eta aktiboak edukitzea hizkuntzarekiko erregistroak direla eta.

Trebetasunak eta estrategiak

1. Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan.
2. Gelako hizketaldietan aktiboki parte hartzea, txanda errespetatuz diskurtsoaren inizatibari eusteko, erantzunen plangintza eginez, argitasunak eskatuz elkar ulertzen laguntzeko eta ideiak garatzen lagunduz.

2. multzoa: Irakurtzea eta idaztea

Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea.

1. Edozein motatako bazterkeria dakarten mezuekiko jarrera kritikoa.

Idatzizko testuak sortzea.

1. Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

Testuak.

Narrazio testuak

1. Postal edo gutun pertsonalak, gonbidapenak, egunerokoa.

Trebetasunak eta estrategiak

1. Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea eta hipotesiak aurretik egitea eta haiek egiaztatzea.

4.multzoa: Hizkuntzaren ezaguera

1. Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio gramatikaren inguruko gogoetari. Horrenbestez, edukien sekuentzia gauzatuko da ikasleen ezaugarri kognitibo, psikologiko eta linguistikoak aintzat hartuz.
2. Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak; esakunea, hitza eta silaba; determinatzaileak, izenordeak, aditzondoak; aditz denbora (orainaldia, lehenaldia, geroaldia).

Trebetasunak eta estrategiak

1. Komunikazioa lortzea erregistro egokia erabiliz eta adierazpide arruntegietara jo gabe.
2. Aditz denborak egoki erabiltzea.

5.multzoa:Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

1. Gogoeta egitea hizkuntzari eta hizkuntzei buruz, ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak eta zuzenketak onartzea ikaskuntza prozesuaren atal gisa.
2. Bikoteka eta taldeka lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta besteekin lankidetzan arituz.

Trebetasunak eta estrategiak

1. Bikoteka eta taldeka lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta besteekin lankidetzan aritu.

4.5 Metodologia

Metodologia kontuan izanik, programa honen lanketa egiteko ikasleek dituzten ezagutzak kontuan hartuko dira eta horretan oinarriturik aditzaren denbora eta erreferentzia mekanismoak lantzen hasiko dira.

Ariketen moduari dagokionez, jarduera ezberdinak planteatuko dira. Batzuk bi alderdi horiek zuzenean lantzeko ariketak izango dira, non ikasleak goian agertzen zaizkion hitzak sailkatu, hutsuneetan jarri, esaldiak osatu e.a. behar dituen. Ariketa hauetan alderdi bakoitza bereziturik landuko dira, ikasleak ezagutza argi bat lortzeko. Behin ariketa hauek landu ondoren, bi alderdi hauen lanketa global batera pasako gara, hasieran, testu txikiak emango zaizkie non ikasleak identifikatu beharko dituen eskatzen zaizkion baliabideak, ondoren, testu txikitako hutsuneak osatu beharko dituzte eta azkenik, beraiek egin beharreko testuetan beste ariketen bidez aplikatu beharko dituzte.

Materialari dagokionez, ariketak gehienbat fitxen bidez landuko dira, horrela ikasleek berea egin dezakete eta egindakoa gorde. Hala ere, ariketa batzuk arbel digitalarekin egingo dira, bertan ikasleen arreta lortu nahi delako eta bisualki ikus dezaten ariketa horietan egin behar dena.

Gelako antolamenduari dagokionez, mota ezberdinetako jarduerak daudenez, antolamendua ezberdina izango da. Hasiera batean, ikasleak bere burua kokatzeko ariketak banaka egingo dituzte, horrela ikasleen aurrezagutzak kontrolatuko ditugu. Behin aurrezagutzak jaso ditugunean, ariketaren arabera, banaka, talde txikitik edo talde handitan jardungo dute. Hala ere, hori jardueretan zehaztuko da.

Bukatzeko, irakasleak ikasle bakoitzaren lan erritmoa errespetatu behar du eta bere papera ikasleei azalpenak ematea eta arazoak dituztenean laguntzea izango da. Horretaz gain, arreta indibidualizatua ematen saiatuko da.

4.6 Ebaluazio irizpideak

4.6.1 Curriculumeko irizpideak

1.multzoa: hitz egitea eta hizketan aritzea.

2. *Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, entzutea, gauzak argitasunez adieraztea, intonazio egokia erabiltzea.* Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikasgelan ematen deiren ahozko elkar trukeetan parte hartzeko duten gaitasuna eta horrekiko duten jarrera.

2.multzoa: idaztea

6. *Testu esanahidun desberdinak idaztea, berridaztea eta laburtzea, eguneroko eta eskolako egoeretan, modu antolatu eta egokian, testuen plangintza era berrikuspena erabiliz, eta arau gramatikalak eta ortografikoak eta alderdi formalak zainduz, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean.* Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren bere hurbilean dauden testuak, gutunak, egunerokoa e.a. egokiro idazteko. Horretaz gain, idazketetan oinarrizko arau ortografiko eta gramatikalak baloratuko dira gehienbat.

4.multzoa: hizkuntzaren ezaguera

10. *Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzea eta erabiltzea testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.* Irizpide honekin baloratu nahi da ea ikasleak barneratu dituen oinarrizko ezagutza gramatikalak eta ea gai den ondoren adieraziko diren hitz hauen inguruko terminologia egokia erabiltzeko: aditz denbora (lehenaldia, orainaldia eta geroaldia), determinatzaileak, aditzondoak, izenordainak e.a.

5.multzoa: hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

11. *Estrategia batzuk erabiltzea ikasten ikasteko.* Baloratu nahi da, ikaskuntza prozesuan oinarrizko estrategiak erabiltzen dituzten, hala nola, ikusizko baliabideak erabiltzea, hiztegiak erabiltzea e.a.

4.6.2. Sorturiko irizpideak

Planteatu diren helburuak lortzeko honako irizpide hauek planteatzen dira:

- Ikasleak aditzaren aldiak ezagutzen eta ongi erabiltzen ditu. Gainera, jardueren bidez, bere eguneroko bizitza arruntean modu zuzen eta koherente batean erabiltzen ditu.

- Ikasleak erreferentzia mekanismoen ezagutza handitu du, badaki zeintzuk diren eta modu egokian aplikatzen ditu egin diren jardueretan.
- Ikasleak pronominalizazioaren eta aldiaren korrelazioaren funtza ulertu eta aplikatzen du.
- Ikasleek elkarren arteko laguntza ematen dute bi alderdi horiek lantzeko orduan, hau da, lankidetzan jarduten dute horrela eskatzen duten jarduerak egin behar direnean eta arazoak dauden momentuan elkar laguntzen dute.

Irakasleak irizpide hauek kontutan izango ditu eta horren arabera baloratuko du ikasleak planteaturiko helburuak lortu dituen edo ez. Ikasle bakoitzaren ebaluazioa ondoren adieraziko den erregistro taulan bilduko ditu, non irizpide bakoitza 1etik 5era puntuatuko dituen. Hona hemen erregistro taularen adibidea.

IKASLEA	1.IRIZPIDEA	2.IRIZPIDEA	3.IRIZPIDEA	4.IRIZPIDEA
1.ikaslea	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5	1 2 3 4 5
2.ikaslea				
...				

Ebaluatzeko moduari erreparatuz gero, ebaluazioa batez ere jarraitua izango da, hau da, ikasleak ariketak egiten dituzten bitartean irakasleak gainbegiratuko dizkie. Horretaz gain, ez ditu beti egiten dituzten fitxak hartu eta zuzenduko, baizik eta, ahozko galderak egingo ditu ikusteko zer moduz doazen lanketarekin. Beraz, behaketa bidezko ebaluazioa dela esan daiteke. Hala ere, irakasleak ikusten badu modu horretan ez duela behar bezala ebaluatzen ikasleak ikasten duen edo ez, frogatxoak pasa ditzake hori ziurtatzeko. Hala ere, ez du inolaz ere azkeneko ebaluaketa soil batekin baloratuko ez baita batere komenigarria ikaslearen garapena eta aurrerapena ikusteko. Beraz, eginiko erregistro taularekin irakasleak ikasleek egiten dituzten ariketa ezberdinen informazioa bildu dezake eta horrela ahulguneak dauden momentuan beharrezkoa duten laguntza emango zaie.

4.7 Jarduerak

Jarduerak azaltzen hasi aurretik, hirugarren eta laugarren mailara egokituriko jarduerak izango dira, beraz, ariketen zailtasuna mailaren arabera jarriko da. Horretaz gain, jarduerak egiteko denbora zehaztua dago, baina hurbilpen bat da soilik, hau da, ikasleek denbora gehiago behar badute denbora hori eskainiko zaie, beraz, denbora malgua izango da.

ADITZAREN ALDIA

3.mailako ikasleentzat egokituriko jarduerak.

Argibideak: Jarduerak planteatzen hasi aurretik, honako argibide hauek kontuan izan beharko dira: hasteko, planteatuko diren lehenengo jarduera multzo bat, ikasleek aditzaren aldiaren inguruko dituzten ezagutzak neurtzeko izango dira, baita, ondoren datozen jarduera konplexuak egiteko oinarri sendo bat hartzea ere. Horretarako, hasieran, aldiak ezberdinak ariketa ezberdinen bitartez landuko dituzte. Bestetik, behin oinarri hori hartzeko hiru edo lau ariketa egin dituztelarik, testu mailan aditzaren denbora identifikatzera pasako dira ikasleak. Behin hau eginda, aldien korrelazioa lantzeko ariketa batzuk planteatuko dira. Bertan, ikasleek aldien arteko korrelazioan duten ulermen maila neurtuko da. Korrelazioa lantzeko, hutsuneak betetzeko ariketak eta aukeratzeko ariketak egongo dira gehienbat.

1. jarduera: Aditzak erreparatzen.

Helburua: Ikasleek dituzten aurrezagutzak irakasleak ezagutzea, ariketa interaktibo baten bidez.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak hasieran ariketa hau arbel digitalaren bitartez egingo dela adieraziko du. Horretarako, ariketa interaktibo bat jarriko zaie ikasleei (<http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indikorainnor.htm>) Ondoren, ariketa azalduko die, non esango dien, ariketa honetan aditzaren orainaldia landu behar dutela, ikasleek bertan esaldietako hutsuneak bete behar dituztelarik. Horretaz gain, hasierako jarduera denez, ikasleak binaka jarriko ditu talde bikoteak osatuz.

Garapena: Ariketa honetan, ikasleek esaldietako hutsuneak bete behar dituzte, horretarako, arbel digitalean irakasleak ordenagailuko teklatua jarriko du. Hasierako ariketa denez, ikasleak binaka pasako dira ariketa egitera, errazago egiteko. Hala ere, batzuei zaila suertatzen bazaie, besteen laguntza izango dute. Ariketa hau klasearen hasieran egingo da, ikasleen arreta irakasleak bereganatzeko eta ikasleen aurrezagutzak jakiteko moduan.

Bukaera: Arazorik suertatzen bada ikasleen artean, irakaslearen laguntza jasoko dute. Zuzenketari dagokionez, esaldi bakoitza egin ahala zuzentzeko teklari emango diogu, horrela ikasleek ikusik baitute ongi egin duten edo ez.

Denbora: Klasearen hasierako 15 minututan burutuko den jarduera izango da.

Materiala: Arbel digitala.

2. jarduera: Aditzaren aldi ezberdinak lantzen.

Helburua: Lehenaldiko eta orainaldiko aditzak ezagutzea, eta egoki sailkatzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Aditzaren aldia lantzeko, lehenengo jarduera bezala, iraganean eta orainaldian dauden aditz ezberdinak emango zaizkie ikasleei, non ikasleek bakoitza bere aldiari jarri beharko duen. Ariketa egin aurretik, irakasleak, aditz hauen aldia kontuan izanik, aldi bakoitzaren ezaugarriaren bat azalduko die, esaterako, lehenaldiko aditzek jada gertaturiko zerbait adierazten dute, atzo gertaturikoa adibidez eta horretaz gain, aldiaren marka bezala “n” eramaten dutela. Orainaldiari dagokionez berriz, esango die orain, gertatzen ari den zerbait adierazteko erabiltzen dituztela.

Garapena: Irakasleak ondoko aditz hauek emango dizkie ikasleei: *naiz, dira, genituen, nintzen, ziren, ditugu, ginen, ditut, nituen, gara, dituzte* eta *zituzten*. Horretaz gain, aditz horien azpian dagoen taulan aditz bakoitza kokatu beharko dute ikasleek. Jarduera hau bakarka egingo dute.

Bukaera: Irakasleak, hasierako azalpena eman eta gero, behatzaile papera izango du ariketa honetan, hau da, ikasleak lana egiten ari diren bitartean, irakasleak soilik

begiratu egingo du egiten dutena. Ariketa bukatu ondoren, guztien artean zuzenduko dute ariketa eta akatsak gorritz markatzeko eskatuko die irakasleak, horrela argiago ikusiko baitute arazoa non dagoen.

Denbora: Irakasleak ariketa hau burutzeko 30 minutu eskainiko dizkio, hasierako hamar minutuak irakasleak behar dituen azalpenak egiteko eta adibideak jartzeko. Beste hamabost minutu ariketa burutzeko izango dira eta beste hamar zuzentzeko.

Materiala: Jarduera hau aurrera eramateko, irakasleak banaturiko fitxa (*ikus 1.eranskina*) beharko dute ikasleek, eta hori egiteko arkatza eta borrazekoa.

3. jarduera: Aditzak sakontzen.

Helburua: Aditzak dagokien tokian jartzea, aldia egokia erabiliz.

Gaitasuna: 1,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei emango dizkien esaldiak erakutsiko dizkie. Horretaz gain, ariketak zertan datzan adierazi die. Horretarako, lehenengo esaldia berak egingo du adibide bezala. Irakasleak binaka jarriko ditu ikasleak.

Garapena: Jarduera egiten hasi aurretik, irakasleak arbelean erakusten dizkien esaldiak kopia beharko dituzte beraien koadernoetan, beharrezkoa den tokian hutsuneak utziz. Hori egin ondoren, ikasleek esaldien azpian agertzen diren aditz aukerak ere kopia beharko dituzte. Ondoren, ikasle bakoitzari egokiena iruditzen zaion aditza aukeratu eta idatzi beharko du. Aukeratu eta gero, bakoitzak berriro irakurri beharko du esaldia eta egiaztatuko du ongi duen ere.

Bukaera: Irakasleak behatzaile papera hartuko du ariketa honetan, hau da, ikasleen jarduna kontrolatuko du, zalantzarik ez badago ez du inolako interbentziorik egingo. Zuzenketari dagokionez, hasieran, talde txikietan bilduko dira bikoteka egin duena komentatuko dutelarik, eta ondoren talde handian zuzenduko dute.

Denbora: 40 minutu izango dituzte, guztia kopia, egin eta talde txikian zein handian zuzenketa egiteko.

Materiala: Ariketa hau burutzeko, ikasleek koaderno eta arkatza beharko dituzte horretaz gain, arbela digitala eta bertan jarriko diren esaldiak:

Esaldiak honako hauek izango dira:

- a. Atzo, amak eta biok loreak landatu genituen, gaur saldu behar _____.
 - i. genituelako.
 - ii. ditugulako.
 - iii. zituelako.
- b. Atzo amonaren etxera joan ginen bisitan, gaur ezin _____ joan.
 - i. dugulako
 - ii. zuelako
 - iii. nuelako
- c. Aita eta ni aurreko larunbatean erosketak egitera joan ginen, igandean bazkaria _____.
 - i. genuelako.
 - ii. dugulako.
 - iii. zeukalako.
- d. Atzo arratsaldean gozokiak erosi genituen, gaur eskolara eraman _____.
 - i. ditugu
 - ii. nituen
 - iii. ditut
- e. Atzo amonarentzat opariak erosi zituzten gurasoek, bihar bere urtebetetze _____.
 - i. delako.
 - ii. zelako.
 - iii. zuelako.
- f. Atzo lehengusuek zinemara joateko txartelak erosi dituzte, gaur zinera joan behar _____.
 - i. direlako
 - ii. zirelako
 - iii. zelako

4. *jarduera: Aldi guztiekin jardunean.*

Helburua: Aditz berdina hiru aldi ezberdinetan egoki jartzea. Eta gai izatea, bi aldi hartuta bost lerro ongi idaztea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak geroaldiaren inguruko azalpena eman beharko du, eremu honetan zerbait berria baita ikasleentzat. Horretarako, etorkizunak zer esan nahi duen adierazko du lehenengo, hala nola, etorkizunean zer gertatu den adierazten du geroaldiak. Gainera, geroaldia zehazten duten markak zeintzuk diren adierazko dizkie, *-ko* eta *-go*, non *“-ko”* bokalez bukatzen den aditz izenei jartzen zaien eta *“-go”* kontsonantez bukatzen diren. Horretaz gain, berak banatutako fitxa azaldu beharko du, zer egin behar duten ariketa bakoitzean argituz.

Garapena: Lehenengo ariketan irakaslearen azalpena ulertu dutela zehazteko, ikasleek taula bat bete beharko dute, non hiru aldiak agertzen diren, orainaldia, lehenaldia eta geroaldia. Aipatzekoa da, lehenengo ariketan landu ez den aldi bat sartuko dela, geroaldia zehazki. Ondorioz, taulan geroaldiko zutabeen aditz batzuk jarriak agertuko dira. Taula bete ondoren, ikasleek, bost lerrotan adierazi beharko dute atzo zer egin zuten eta bihar zer egingo duten, beti ere taulako aditzak kontuan izanik.

Bukaera: Irakasleak jarduera interbenitu dezake, batez ere, zalantzan sortzen diren momentuan. Horretaz gain, zuzenketa bi modutan egingo da. Lehenengo ariketako taula guztien artean zuzenduko dute, eta bigarren eta hirugarren jarduerak berriz irakasleak zuzenduko ditu, bertan zuzentasun gramatikalari garrantzia emateko eta bakoitzaren eredia ongi aztertzeke.

Denbora: 50 minutu izango dituzte irakaslearen azalpena entzuteko eta ariketa burutzeko.

Materiala: Irakasleak banatuko dien fitxa (*ikus 2. eranskina*) beharko dute, eta bertan idazteko arkatza.

5. *jarduera: Erantzun egokia aukeratu!*

Helburua: Ikasleek esaldiak ongi ulertzeko erantzun egokiak aukeratzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak jarduera zertan datzan adieraziko die ikasleek, hau da, esaldi bakoitzeko egokia den erantzuna aukeratu beharko dutela.

Garapena: Ikasleek bakarka egin behar dute ariketa. Ikasleari orainaldian, iraganean eta geroaldian dauden esaldia emango zaizkio. Berak aditz egokia aukeratu behar du. Horretarako esaldi bakoitzeko hiru aukera izango ditu, zeinetatik aukera bakarra ona izango den. Ondoren, adierazi beharko du esaldi bakoitza zein alditan dagoen.

Bukaera: Irakasleak paper pasiboa izango du, hau da, ez du inolako esku hartzerik egingo ariketa honetan, neurtu beharko baitu zer nolako oinarria hartu duten ikasleek hiru aldiei dagokionez. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dute ariketa.

Denbora: Ariketa hau burutzeko, 20 minutu utziko zaizkie ikasleei.

Materiala: Irakasleak prestaturiko fitxa (*ikus. 3. eranskina*) eta hori egiteko arkatza.

6. *jarduera:* Aditzak testuan lantzen.

Helburua: Aditzen aldiak identifikatzea eta eskatzen den aldietara aldatzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak egin beharra azalduko die ikasleei. Hau da, testu bat azalduko die eta bertan egin behar dena esango die. Adibidez, urdinez agertzen diren aditzak aldiz aldatzeko.

Garapena: Ikasleei testu txiki bat emango zaie non aditzak kolore urdinez agertuko diren. Ikasleek aditz horiek aldiz aldatu beharko dituzte, iraganean daude orainaldira pasatuz, orainaldikoak geroaldira eta geroaldikoak iraganera. ikasleek beraien koadernoan ariketaren izena jarririk aditzak aldiz aldatuak idatziko dituzte. Ondoren, hiru aldietako aditz bana hartu eta esaldi bana sortuko dute.

Bukaera: Irakasleak zalantza dagoen momentua esku hartuko du. Zuzenketari dagokionez, ikasle bakoitzak egindako esaldi bat esango du, baina esan baino lehen, testuko zein aditz erabili duen esan beharko du bitartean besteek akatsak badituzte zuzentzeko.

Denbora: Ariketa hau egiteko 40 minutu emango zaizkie ikasleek.

Materiala: Testua proiektatzeko arbela digitala, ikasleen koaderno eta arkatza.

TESTUA: Shanghai: Ekialdeko hiriburua:

Orain dela hamabost urte, Huangpu ibaian amaitzen zen Shanghai. Ibaiaren beste aldean, lantegiak eta nekazarien lursailak zeuden. Jende guztiak bi lanbide horietan lan egiten zuen. Familia txiroak ziren eta egindako lanarekin bizia ateratzen zuten. Gaur egun, ibaiaren alde horrek ez dauka lehengo antzik; bulegoz betetako etxe-orratz ugari, salto handiak eta telebista-dorre itsusi bat ditu. Munduko etxe-orratzak handiena ere bertan eraikiko dute.



Eguraldiak gorabehera handiak izaten ditu. Neguan, hotz handia egiten du eta udan temperatura altuak izaten dira.

7. jarduera: Goazen idaztera!

Helburua: Narrazio testu bat egitea aldi egokia erabiliz eta mantenduz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren garapena:

Hasiera: Irakasleak, orain arte landutako guztia ikusi ondoren, narrazio testu bat egiteko eskatuko die ikasleei. Bertan, beraiek nahi dutena kontatzea eskatuko die.

Garapena: Ikasleek bere esperientzian hurbil dagoen zerbait kontatu beharko dute idazki honen bitartez. Horretarako, aurreko ariketetan landutako aldiak ongi barneratuak izan behar ditu, sortuko duen testuan aldiaren mantentzea egiteko.

Bukaera: Gutxienez aldi baten korrelazioa landu beharko dute esaldi hauetan. Zuzenketari dagokionez, irakasleak egingo du, testuak jasoko baitu ikasleek egiten dituztenean. Nahiz eta ariketa eskolan egin, bertan idatzi dutena etxean errepasatzea eskatuko zaio, batez ere aldiak ongi erabili dituzten.

Denbora: Bi saio izango dituzte.

Materiala: Testua idazteko koaderno eta arkatza.

8. *jarduera:* Zein da aditz egokia?

Helburua: Ikasleek esaldietan falta den aditza zein alditakoa den identifikatzea eta aditz egokia jartzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbela digitalaren bidez, ikasleei hutsuneak bete behar dituzten aditzak erakutsiko dizkie, eta adieraziko die, esaldi bakoitzean aditz bat jarrita dagoela eta hutsunean bat jarri behar dutela, baina aldia eta korrelazioa mantenduz.

Garapena: Ikasleek esaldiak koadernoak kopiatuko dituzte, baita azpiko taula ere. Hori egin ondoren, esaldiak irakurriko dituzte eta hutsuneak betetzen hasiko dira. Horretarako, esaldian agertzen den aditza kontuan izan beharko dute, hurrengo aditza jartzeko, erlazonaturik egongo direlako. Beraz, korrelazioa kontuan izan beharko dute. Ariketa hau banaka burutuko dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak ikasleek egiten ari diren lana behatuko du eta arazoak dauden momentuan azalpenak emango ditu. Zuzenketari dagokionez, arbela digitalaren bidez egingo dute, horrela ikasleek bisualki ikusiko baitute zein den aditz egokia.

Denbora: Ariketa burutzeko 20 minutu izango dituzte ikasleek.

Materiala: Arbel digitala, esaldiak, koaderno eta arkatza.

Esaldiak:

-Mikelek eskolara eramaten **ninduen** egunero bizkar-zorroan , eta ni poz pozik joaten_____.

- Mikelen etxeok asko maite_____, eta benetan atseginak **ziren** nirekin.

-Mikelek ipuinak kontatzen **zizkidan** gauero eta nik arreta handiz entzuten _____.

-Mikelek panpina berria aurkeztu_____, eta lagun onak egin **ginen**.

-Hortik aurrera, Mikel bioi eramaten **zigun** eskolara eta gu oso gustura ibiltzen _____ handik.

-Etxean ere asko maitatu_____ beste panpina eta gustura bizi **zen** gurekin.

naiz	nintzen	gintuen	naute	ditut	
ninduten	nau	zidan	nituen	gara	digute
	zuten	gaituzte	ginen	gintuzten	

9. jarduera: Aukeratu erantzun egokia.

Helburua: Ikasleek esaldia osatzea, lehenengo zatiaren aldia kontuan izanik.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak fitxa batean ikasleei esaldiak eta aukera emango dizkie. Ondoren, azalduko die zer egin behar duten, zehazki esaldia osatu. Horretarako, irakasleak adieraziko die, esaldi erdi bat daukatela soilik eta beste erdia aukerekin osatu behar dutela. Hori egiteko, esaldiaren aditzaren aldia kontuan hartu behar dute, bi zatien korrelazioa eman behar delako.

Garapena: Ikasleek irakasleak emandako fitxa kontuan izanik, esaldiak eta aukerak irakurriko dituzte hasiera batean. Ondoren, beraientzat egokiena den aukera hautatu behar dute, beti ere kontuan hartu behar dutelarik esaldiaren aldia. Jarduera hau, banaka burutuko dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak, ikasleek zalantzak dituztenean laguntza eskainiko die, zalantza hori argitzeko. Zuzenketari dagokionez, hasieran talde txikian zuzenduko

dituzte, bakoitzak egin duena besteei adieraziz. Hori egin eta gero guztien artean talde handian.

Denbora: Ariketa hau burutzeko eta zuzentzeko ikasleek 40 minutu izango dituzte.

Materiala: Fitxa eta arkatza.

Fitxa:


1)emakumeak txakurrari zaunkarik ez egiteko esan zion _____

- a) zaunkek buruko mina ematen diotelako
- b) zaunkek buruko mina emango diotelako
- c) zaunkek buruko mina ematen ziotelako
- d) zaunkak ez zaizkiolako gustatzen.



2)Ardiak txakurrari zaunkarik ez egiteko esan dio _____

- a) otsoa etorriko zelako
- b) otsoa etorri zelako
- c) otsoa etorriko delako
- d) lorik ez zuelako egin




3)Otsoak txakurrari zaunkarik ez egiteko esan zion _____

- a) hartzaren beldur zelako
- b) hartzaren beldur delako
- c) hartzaren beldur egongo delako
- d) buruko mina jarriko diolako



4)Hartzak txakurrari zaunkarik ez egiteko esan dio _____

- a) gizakia etorriko zelako
- b) gizakiaren beldur zelako



- c) gizakia etorriko delako
- d) lorik ezin zuelako egin.

5) Katuak txakurrari bere laguna ez zuela izan nahi esan zion _____

- a) bere beldur delako
- b) bere beldur zelako
- c) zaunkek izutzen diotelako
- d) jango duela pentsatuko duelako



10. jarduera: Osatu testua.

Helburua: Ikasleak gai dira aukeretan agertzen diren aditz egokia erabiliz testua egoki osatzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketen azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalean testua zenbaki batzuekin proiektatuko du. Azalpenari dagokionez, ikasleei esango die beheko aldean agertzen diren aukerekin osatu behar dutela testua, zenbaki bakoitzari dagokion multzoa kontuan izanik.

Garapena: Ikasleek testua irakurriko dute, eta beraien koadernoan zenbakiak idatziko dituzte. Bigarren aldiz irakurtzean zenbaki bakoitzari dagokion multzotik aditz bat aukeratu beharko dute, eta koadernoan idatzi. Hori egin ondoren, hirugarren aldiz irakurriko dute eta jarritako erantzunak zenbakiekin ordezkatzeko dituzte, eta ongi dagoen zehaztuko dute.

Bukaera: Irakasleak ikasleak jarduera egiten ari diren bitartean behatuko du eta ondoren, guztien artean zuzenduko dute eta irakasleak aukerak arbela digitalean borobilduko ditu ikasleek zuzenketak egin ahal izateko.

Denbora: 30 minutu izango dute jarduera egiteko.

Materiala: Arbela digitala, testua, koaderno eta arkatza.

Testua:

Gaur gauean, bidaiarientzat festa bat _____ (1) _____ hotelean.
Festa aparta izango dela _____ (2) _____; lehen afari eder
bat _____ (3) _____, eta, afal ondoren, nagusiak, dantzaldi bat
izango dela _____ (4) _____. Ama eta biok erosteka egitera
_____ (5) _____ atzo. Amak soineko polit bat ikusi zuela
_____ (6) _____, oso dotorea.



1) a: dago
b: egongo da

2) a: entzungo dugu
b: entzun dugu

3) a: emango digute
b: eman digute

4) a: esango digu
b: esan digu

5) a: joan gara
b: joan ginen

6) a: esango dit
b: esan zidan

11. jarduera: Osatu esaldiak.

Helburua: Ikasleek esaldietan falta den aditza zein alditakoa den identifikatzea eta aditz egokia jartzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketen azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalaren bitartez esaldiak proiektatuko ditu. Bertan, aditz batzuk falta direla esango die ikasleei eta berakien beheko taulatik harturik osatu behar dituzte. Hori egiterakoan, esaldian dagoen aldia kontuan izan behar dute, bi aditzek korrelazioa izan dezaten.

Garapena: Ikasleek beraien koadernoan arbel digitaleko esaldiak kopiatuko dituzte. Hori egin ondoren, irakurriko dituzte eta esaldiaren aldia identifikatuko dute. Gero, beheko taulatik aditz egokia aukeratuko dute, esaldian dagoen aditzaren korrelazioa mantentzen duelarik. Ariketa hau bakarka egingo dute.

Bukaera: Irakasleak ikasleek zalantzak dituzten momentuan ikasleei laguntza eskainiko die. Zuzenketari dagokionez, talde handian zuzenduko dituzte, non ikasleek egindakoa esango duten eta irakasleak erantzunak arbel digitalean islatuko dituen.

Denbora: 30 minutu izango dituzte jarduera burutzeko.

Materiala: Arbel digitala, esaldiak, koaderno eta arkatza.

Esaldiak:

-Amak erosketa egitera eramaten **nau** asteazkenero eta ni oso pozik joaten _____.

-Aita batzuetan gurekin etortzen _____, baina askotan lanean **dago**.

- Amak ia beti zerbait gozoa erosten **dit**, eta nik eskerrak emanez guztia segituan jaten _____.

-Baina asteazken honetan izebari etortzeko esan _____, eta gustu handiz baietz esan **digu**.

-Beraz, pentsatzen dut, aste honetan amak eta izebak erosiko **didate** eta horrela, nik bat gordeko _____ beste egun baterako.

naiz	gara	nuen	dut	diogu	dut	zen
dugu	neukan	nuen	da	genion	ditut	nintzen

12. jarduera: Aukeratu erantzun zuzena.

Helburua: Ikasleek esaldia osatzea, lehenengo zatiaren aldia kontuan izanik.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak fitxa batean ikasleei esaldiak eta horiek osatzeko aukerak emango dizkie. Ondoren, adieraziko die ikasleei esaldia osatu behar dute beheko aukerak kontuan izanik, beti ere, hasierako zatiaren aldia kontuan izanik.

Garapena: Ikasleek irakasleak emandako fitxa irakurriko dute hasiera batean, ondoren, esaldi bakoitzeko aukera bana hautatuko dute, beraientzat egokiena dena zehazki. Hori egin eta gero, berriro irakurriko dute testua eta ziurtatuko dute hautatu duten aukera egokia den hala ez. Banaka egiteko jarduera izango da.

Bukaera: Irakasleak aztertuko du, ea ikasleek korrelazioa ongi mantentzen duten esaldi horietan, eta zalantzarik sortzen bada momentuan argituko ditu. Zuzenketari dagokionez, hasieran talde txikian bilduko dira ikasleak eta bakoitzak egin duena adieraziko du. Ondoren, adostasun batera iritsiko dira eta irakasleari adostasun horretan adostutako aukerak zeintzuk diren esango diote, horrela azken zuzenketan irakaslearekin egingo dutelarik.

Denbora: Jarduera hau egiteko, 40 minutu izango dituzte.

Materiala: Fitxa, eta arkatza.

Fitxa:

1) Gurasoek errieta bota zidaten_____

- a) etxeko lanak egin gabe utzi nituelako
- b) etxeko lanak egin gabe utzi ditudalako
- c) etxeko lanak presaka eta gaizki egin ditudalako
- d) etxeko lanak erdizka egin ditudalako.

2)Eskolara joango naizenean_____

- a) irakasleak zigortu dit etxeko lanak egin gabe utzi ditudalako.
- b) irakasleak zigortu dit etxeko lanak egin gabe utzi nituelako.
- c) irakasleak zigortu dit etxeko lanak egin gabe utziko ditudalako.
- d) irakasleak zigortu dit gaizki portatu nintzelako.

3)Eskolara joan nintzenean_____

- a) irakasleak zorionduko dit berari lagundu niolako.
- b) irakasleak zoriondu zidan berari lagundu niolako.
- c) irakasleak zoriondu dit berari lagundu niolako.
- d) irakasleak zoriondu zidan berari lagunduko diodalako.

4)Gurasoekin erosketak egitera joan nintzenean_____

- a) aitak txokolatea erosi zidan.
- b) aitak txokolatea erosiko dit.
- c) aitak txokolatea erosi dit.
- d) aitak txokolatea erosiko zidan.

5)Gurasoekin erosketak egitera joango naizenean_____.

- a) amak patatak erosiko dizkit.
- b) amak patatak erosi dizkit.
- c) amak patatak erosi zizkidan.
- d) amak patatak eman zizkidan.

4.mailako ikasleentzat egokituriko jarduerak

Argibideak: Lehenengo jarduera, aurrezagutzak lortzeko ariketa izango da, ikasleek aldien inguruan dituzten aurrezagutzak. Hori egin ondoren, aldien lanketa egingo da baina kasu honetan bi edo hiru aldi batera landuko direlarik, kasuaren arabera. Aurrekoan bezala, ariketa ezberdinak planteatu dira, non hasierakoak oinarri bat hartzeko eta birgogoratzeko izango diren. Ondoren testu mailan landuko dira aldiak baita ariketa ezberdinen bidez aldien korrelazioa ere. Bukatzeko, testu bat sortu beharko dute beraiek, non ikasitakoa islatu behar duten.

1. jarduera: Zer dakigu aldiei buruz?

Helburua: Ikasleek dituzten aurrezagutzak zeintzuk diren jakitea.

Gaitasunak: 1,4,7eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ariketa interaktibo bat egingo dutela adieraziko die, arbel digitalaren bitartez. Ariketa horietan hutsuneak bete behar dituztela adieraziko die ikasleei.

Garapena: Ikasleen aurrezagutzak ezagutzeko asmoz, lehenengo jarduera gisa arbel digitalaren bitartez, euskal jakintza baliabideetako bi ariketak interaktibo egingo dituzte, (http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indik_lehen_nor2.htm) eta

(http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indik_orain_nor2.htm). Bertan, esaldi ezberdinak agertzen dira, hutsuneekin. Ikasleek aditz egokia jarri behar dute bertan. Horretarako, irakasleak arbelean ordenagailuko teklatua jarriko du ikasleek hutsuneetan idatzi ahal izateko. Bi ariketa ezberdin dira, lehenengoan, aditzak iraganean jarri behar dira eta bigarreanean berriz orainaldian. Ikasleak bertan banaka jardungo dira, eta irakasleak bakoitzaren aurrezagutzak zeintzuk diren ikusteko aukera izango du.

Bukaera: Laguntza behar duten momentuan eska dezakete. Aurrekoan bezala, aditz bat idazten dutenean zuzentzeko aukerari emango dio ikasleak ongi egin duen edo ez ikus dezan.

Denbora: Klase hasieran landuko direnez ariketa hauek, lehenengo 15 minutuak eskainiko zaizkio.

Materiala: Arbel digitala.

2. *jarduera: Asmatu ezazu zein den aditz egokia!*

Helburua: Ikaslea gai izatea testuan egokiak diren aditzak jartzeko, aldia kontuan izanik.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8

Ariketaren azalpena

Hasiera: Irakasleak ikasleei fitxa banatuko die non hutsuneak betetzeko testua bertan izango duten. Horretaz gain, irakasleak azaldu beharko die hutsuneetan jarri beharko aditza asmatu beharko dutela aldia kontuan izanik.

Garapena: Aditzaren aldiak jorratzeko, hutsuneak betetzeko ariketa bat jarriko zaie. Kasu honetan, ikasleei ez zaizkie hutsuneetan jarri behar diren aditzak emanen beraiek asmatu behar dituzte zeintzuk diren. Bertan jarri beharreko aldia iragana eta orainaldia da. Tempus ezberdinak lantzeko lehenengo ariketa denez, ikasleak hiruko pertsonetako talde txikietan bilduko dira.

Bukaera: Irakasleak zalantzak sortu bezain laster esku hartuko du zalantza horiek argitzeko. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dute ariketa, ozenki.

Denbora: 30 minutu izango dituzte jarduera burutzeko.

Materiala: Ikasleei fitxa bat emango zaie testuarekin eta hori egiteko arkatza erabiliko dute.

Testua:

Atzo goizean, Txilera iritsi ginen. Hegazkina goizeko seietan hartu _____ eta hegaldia zortzi ordukoa izan _____. Goizeko hamaiketan, Santiagora, Txileko hiriburura, iritsi _____. Bero izugarria egiten _____. Horregatik, aireportutik hotelera joan _____ zuzenean eta han pasatu _____ arratsaldea.



Gaur goizean, goiz jaiki gara. Lehenengo euskal etxea ikusi _____. Ondoren hondartzara joan _____ eta uretako motorretan gainean ibili _____. Arratsaldean, hotelera itzuli gara eta igerilekura joan _____. Azkenik, hango jatetxe batean afaldu _____.

3. jarduera: Ea asmatzen dugun!

Helburua: Aditzaren aldia ongi identifikatzea eta behar den tokian sailkatzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei esango die testua azpimarraturik agertzen diren zatiak sailkatu behar dituztela. Horretarako proiektorean testua jarriko die.

Garapena: Ariketa honetan orainaldian eta lehenaldian agertzen diren esaldiak sailkatu behar dituzte. Esaldi horiek urdinez markaturik egongo dira. Testua arbela digitalean proiektatu da eta ikasleek esaldien sailkapena koadernoan jarriko dute.

Bukaera: Zuzenketari dagokionez, lehenengo talde txikietan bilduko dira eta bakoitzak egin duena adieraziko du. Hori egin ondoren, talde handian guztiak batera zuzenduko dute.

Denbora: Ariketa hau egiteko 20 minutu izango dituzte ikasleek.

Materiala: Koaderno eta arkatza beharko dute.

Testua: Taloa hotza kentzeko

Euskal Herrian, *beti jan dugu* taloa; batez ere, neguko hotza kentzeko. *Talaa arto-irinez eta urez egiten da*. Mehe mehea eta biribila da, eta *sugarren gainean egosten da*. Antzina, baserri askotan, *esnetan egositako talo-zopak jaten zituzten* gosaltzeko, azukrea eta gatz apur bat bota. Bazkaritan ere, *babarrunei laguntzeko erabiltzen zuten taloa*, eta afaritan, *sardina zaharrekin edo hirugiharrarekin jaten zen*. Gaur egun, ordea, azoketan *eta herriko jaietan jaten dugu txistorrarekin edo hirugiharrarekin*. *Gozozaleenak txokolatearekin ere jaten dute!*

4. jarduera: Nola osatu testua?

Helburua: Ikasleek hutsuneetan aditz egokiak jartzea eta geroaldira pasatzean egin behar diren aldaketak egoki egitea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testua arbel digitalean jarriko du. Eta ikasleei lehenengo argibideak emango dizkie, hau da, jarduera horretan hutsuneak bete behar dituztela aditz egokia erabiliz eta ondoren geroaldira pasa behar dutela egin behar diren aldaketak eginez.

Garapena: Ariketa honetan ikasleek jarraian agertuko den testuko hutsuneak bete beharko dituzte orainaldiko aditzak erabiliz, hau da, da, dira, gara, e.a. formakoak. Ondoren, pasarte geroaldira pasa beharko dute. Testua laburra denez, irakasleak arbel digitalean proiektatuko du eta ikasleek bertatik kopiatu beharko dute, lehenengo aldiz orainaldiko aditzak sartzeko eta gero aditz horiek geroaldira pasaz.

Bukaera: Ariketa bukatu ondoren, guztiak batera zuzenduko dute, ikasle batzuk ozenki irakurriko dutelarik eta bitartean irakasleak arbel digitalean erantzunak adierazten dituelarik.

Denbora: Ariketa hau burutzeko 40 minutu izango dituzte ikasleek

Materiala: Ikaslearen koaderno, testua idazteko arkatza, arbel digitala eta bertan jarriko den testua beharko dira.

Testua:

Herrian jaiak dira eta jende asko (1) kalean. Lagunok plazan elkartu (2) txupinazoa ikusteko. Gero, kale nagusian, zezensuzkoa ikusi (3) Zortzietan ni etxera joan (4) afaldu egin (5) eta gurasoekin kalera irten (6) berriz. Zubi aldera jendez beterik (7) Suak ikusteko irrikitan (8) denok.

5. *jarduera:* Zer egingo dugu bihar?

Helburua: Egunerokoa idaztean geroaldiko aldia modu egokian erabiltzen duela ziurtatzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei bihar egingo dutenaren inguruan zerbait idaztea eskatuko die ikasleei. Baina hori egiteko, pautak emango dizkie irakaslea.

Garapena: Aldiaren lanketarekin jarraituz geroaldia lantzeko beste ariketa bat egingo dute ikasleek. Horretarako ikasleek bihar zer egingo duten adierazi beharko dute. Hala ere, pista batzuk emango zaizkie, hala nola, *bederatzietan jaiki eta gosalduta, hamarretan portura joan, hamar t'erdietan ontziratuta, hamabietan Hondarribira abiatuta, bostetan Hondarribira portura helduta eta seietan, etxera iritsi*. Baldintza hauek kontuan izanik, ikasleek berain idazlantxoak egin behar dute, beti ere aditzak geroaldian ipiniz.

Bukaera: Ikasleek beraien kabuz egin behar duten lana da. Horregatik, irakasleak ez du esku hartuko. Zuzenketari dagokionez, irakasleak bilduko ditu idazlanak eta bertan aldiaren erabilera egokia egin duten edo ez ikusiko du.

Denbora: 50 minutuko tartea utziko diegu, horren artean aurretiko plangintza, egitea eta berrikusketa sartzen direlarik.

Materiala: Ikasleei fitxa bat emango zaie non baldintza horiek agertzen diren baita idazteko tokia ere. Idazlana egiteko arkatza.

6. jarduera: Adi egon testuan lantzen den aldiari!

Helburua: Ikasleak konturatzea nola iraganeko testu batean orainaldia sartzen ahal den.

Gaitasuna: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testu bat jarriko die non aldi ezberdinak agertzen diren aldi berean. Horretaz gain, ikasleei aldiak azpimarratzeko sango die, kolore ezberdinez.

Garapena: Aurreko ariketetan aldiak landu ondoren, oraingoa, irakasleak testu bat erakutsiko die eta beraiek arretaz irakurri eta dauden aditz aldi guztiak azpimarratuko edo borobilduko dituzte. Iraganekoak gorriz, orainaldikoak urdinez eta etorkizunekoak berdez. Ariketa honen helburua da, adibidez, testu bat iraganean baldin badago ezin dela aldiz aldatu, baina esaterako elkarrizketetan aldia alda daitekeela. Agertuko den testua oso ulerterraza izango da, horrela ongi ulertuko baitute ikasleek eta aldiaren lanketa ongi ikusiko baitute. Ariketa hau guztion artean egingo da ikasleei zaila suertatuko zaielako horrelako ariketa bat egitea.

Bukaera: Denon artean egingo denez, irakasleak paper aktiboa hartuko du. Horretaz gain, edozein momentutan argibideak behar badira emango ditu baita laguntza ere.

Denbora: Saio oso bat izango dugu jarduera egiteko.

Materiala: Irakasleak emandako fitxa, eta azpimarratzeko margoak beharko dituzte.

Testua: *Aspaldi aspaldian, urrutiko herri batean neskatxa polit bat bizi zen. Gurasoekin bizi zen eta oso zorionsua zen. Ia egunero lagunekin geratzen zen bere herriko plazan, han parke baitzegoen.*

Egun batean, etxeko-lanak egitea ahaztu zitzaion eta amari zera galdetu zion?


- Ama arratsaldean lagunekin geratzen ahal naiz?

Eta amak erantzun zion:

- Ez! Lehenengo etxeko lanak bukatu behar dituzu, eta bukatu arte hemen egongo zara.

Neskatoa, burua makurturik bere gelara joan zen eta etxeko lanak egiten hasi zen.

Lanak bukatzeaz zituela, aita etorri zitzaion eta hau esan zion:



- Zer gertatu da?
- Amak etxeko lanak egin arte hemen egon behar dudala esan dit.

Orduan aitak amarekin hitz egin zuen eta esan zion etxeko-lanak bukatuak zituela eta lagunekin joaten uzteko. Orduan ama alabarengana joan zen eta lagunengana joan zitekeela esan zion.

7. jarduera: Zer ikasi duzu?

Helburua: Ikasleek aurreko jardueretan ikasitakoa idazlan baten bitartez aplikatzea.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketen azalpena:

Hasiera: Idazlan lan hau egiten hasi aurretik, irakasleak esango die ikasleei zer nahi duen lortu, hala nola, orain arte egindako guztia aplikatzea.

Garapena: Aurreko jarduera kontuan izanik, ikasleek istorio bat asmatu eta kontatu behar dute. Bertan, aditzaren aldi ezberdinak landuko dituzte baita aldien arteko korrelazioa ere.

Bukaera: Ariketa gelan burutuko dute ikasleek, horrela zalantzak dituztenean irakaslearengana jo dezakete. Zuzenketari dagokionez, idazlan bat denez, irakasleak bilduko du eta batez ere, aldien arteko korrelazioan zentratuko da irakaslea.

Denbora: Jarduera hau burutzeko saio bat edo bi, behar izanez gero, izango dute ikasleek.

Materiala: Idazlana egiteko koadernoan edo orri zuria, eta arkatza.

8. jarduera: Bete esaldietako hutsuneak

Helburua: Ikasleak gai dira esaldietan aditzaren aldi egokia jartzeko eta bi aldiren artean korrelazioa mantentzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei arbela digitalean hutsuneak dituzten esaldiak jarriko dizkie. Ondoren, adieraziko die, hutsune bakoitzean aditza jarri behar dutela, eta kontuan izan behar dutela bi hutsunetako aditzak erlazionaturik egon behar dutela, hau da, korrelazioa eman behar dela.

Garapena: Ikasleek esaldiak koadernoan kopiatu beharko dituzte. Ondoren, hutsuneekin irakurriko dituzte eta gero, hutsune horietan aditz egokia jarri beharko dute. Horretarako, beheko taulan dituzten aditz batzuk erabiliko dituzte. Hutsuneak bete ondoren, berriro irakurriko dituzte eta ziurtatuko dute aditz egokiak erabili dituzten ala ez. Ariketa hau binaka burutuko dute, zailtasuna izan daitekeelako aldia identifikatzen.

Bukaera: Irakasleak ikasleen lana behatuko du eta batez ere korrelazioa egokia den edo ez. Ondoren, guztien artean zuzenduko dute eta egokiak diren erantzunak irakasleak arbela digitalean jarriko dituzte ikasleek zuzentzeko.

Denbora: Ariketa hau egiteko 40 minutu izango dituzte ikasleek.

Materiala: Arbela digitala, koadernoan, esaldiak eta arkatza.

Esaldiak:

-Iaz, irakasleak egunero etxeko lanak ematen _____ eta gu asko kexatzen _____.

-Egun batean irakasleari esan _____ etxeko lanak ez genituela egingo eta zigortuko gintuela esan _____.

-Hurrengo egunean etxeko lanak egin gabe joan _____ eta irakasleak jostaldirik gabe utzi _____.

-Arratsaldean, zigor gisa, plastikarik gabe utzi_____ eta etxeko lan gehiago jarri_____.

-Ordutik aurrera beti egiten _____ etxeko lanak eta irakaslea pozik egoten _____ gurekin.

zizkigun	gintuen	ginen	genion	da	ginen
	zigun	gintuen	ditugu	zigun	dizkigu
	genituen	dizkiogu			

9. jarduera: Aukeratu erantzun zuzena.

Helburua: Ikasleak esaldiak osatzea aukera egokia jarriz.

Gaitasuna: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei ariketaren fitxa emango die eta esango die esaldiaren bigarren zatia osatu behar dute aukera egokia hautatuz. Horretaz gain, esango die, esaldiak zentzua izan behar duela, hau da, aditzari dagokionez, korrelazioa eman behar dela.

Garapena: Ikasleek ariketa egiten hasi aurretik, esaldiak irakurri beharko dituzte. Ondoren, beraientzat egokiena den aukera borobildu beharko dute, beti ere, irakaslearen azalpena kontuan harturik. Ondoren, hautatutako aukerarekin berriro irakurriko dute esaldia ikasleek eta hor ikusiko dute esaldiak koherentzia baduen aditzaren aldiaren aldetik edo aldatu behar duten. Jarduera hau, banaka egingo dute.

Bukaera: Irakasleak ikasleek egiten ari dutena behatuko du, batez ere, korrelazioa mantentzen duten aukera hartzen duten edo ez. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dituzte jarduerak, non ikasleek jarri dutena esango duten eta behar izanez gero irakasleak erantzun egokia errepikatuko duen.

Denbora: 30 minutu izango dituzte jarduera burutzeko.

Materiala: Fitxa eta arkatza.

Fitxa:

1)Hoteleko nagusiak esan digu_____

- a) gaur gauen hotelean festa egongo dela.
- b) gaur gauean hotelean festa egon zela.
- c) gaur gauean hotelean festa egongo dela.
- d) gaur gauean hotelean festa egon dela.

2)Ama eta biok hori entzun dugunean_____

- a) arropa eroatera joan ginen.
- b) arropa eroatera joan gara.
- c) arropa eroatera joango ginen.
- d) arropa erosiko genuen.

3)erosketak egin ondoren, hotelera itzuli gara eta_____

- a) erositako arropa jantzi dugu.
- b) erosiko dugun arropa jantziko dugu.
- c) erosi genuen arropa jantzi genuen.
- d) erosi dugun arropa jantzi genuen.

4)Jatetxera jaitsi ondoren, nagusiak pareta ondoko mahaietan esertzeko esan digu_____

- a) beste mahai guztiak erreserbatuak egongo direlako.
- b) beste mahai guztiak erreserbatuak zeudelako.
- c) beste mahai guztiak erreserbatuko zirelako.
- d) beste mahai guztiak erreserbatuak daudelako.

5)Goizeko hiruretan ohera joan ginen_____

- a) festa bukatu zelako.
- b) festa bukatu delako.
- c) festa bukatuko zelako.
- d) festa bukatuko delako

10. jarduera: osatu testua.

Helburua: Ikaslea gai da testua aditz egokiak erabiliz osatzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalean testu bat jarriko die, non aditzak falta zaizkion. Ondoren, adieraziko die, zenbakiak daude tokian, beheko multzoetako aditzak jarri behar dituztela, beti ere zenbakiak errespetatuz.

Garapena: Ikasleek koadernoan testuan agertzen diren zenbakiak jarriko dituzte. Ondoren, testua irakurriko dute eta beheko aldean agertzen diren aukeretatik bat hautatu beharko dute. Ondoren, testua berriro irakurriko dute hautatutako aukera egokia den ala ez ziurtatzeko. Ariketa hau, banaka burutuko dute.

Bukaera: Irakasleak, ikasleek dituzten zalantzak argituko ditu. Horretaz gain, behaketa egingo du, non zehaztuko duen ikasleek modu egokian burutzen dutela jarduera. Zuzenketa, hasiera batean talde txikietan egingo da, non ikasle bakoitzak bere aukera adieraziko duen. Ondoren talde handian zuzenduko dute guztien artean.

Denbora: 30 minutu izango dituzte ariketa hau egiteko.

Materiala: Arbela digitala, koaderno, testua eta arkatza.

Testua: Bihar gauean auzoko bizilagunentzat festa bat _____ **(1)** _____ auzoko elkartean. Festa ederra izanen dela _____ **(2)** _____. Antolatzaileak esan du, lehenengo afari eder bat _____ **(3)** _____, eta ondoren, dantzaldi bat _____ **(4)** _____ bertan. Orduan, gu afarian apuntatzera _____ **(5)** _____ eta nagusiak, auzokoak izateagatik merkeago dela _____ **(6)** _____. Guk dotore-dotore joatea _____ **(7)** _____ besteen antzera.

1) a: egongo da.
b: dago

2) a: entzun dugu
b: entzungo dugu

3) a: egongo dela
b: egon dela

4) a: egongo da
b: dago

5) a: joango gara
b: joan gara

6) a: esango digu
b: esan digu.

7) a: pentsatu dugu
b: pentsatuko dugu.

11. jarduera: Osatu esaldiak.

Helburua: Ikasleak gai dira esaldietan aditzaren aldi egokia jartzeko eta bi aldiren artean korrelazioari mantentzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei arbela digitalaren bidez esaldiak erakutsiko dizkie. Horretaz gain, esango die, bertako hutsuneak beheko taulan dauden aditz batzuekin osatu behar dituztela. Gainera, ikasleek aditzaren aldia bi aditzetan mantendu beharko dute korrelazioa emanaz.

Garapena: Ikasleek esaldiak bere hutsuneekin koadernoan kopiatu beharko dituzte. Ondoren, irakurriko dituzte eta beheko taulatik hutsune bakoitzean egokiak diren aditzak jarriko dituzte. Gero, berriro irakurriko dute, baina kasu honetan, hutsunean jarri duten aditzarekin, horrela ziurtatuko baitute egokia ongi jarri dituzten ala aldatu behar dituzten. Jarduera, indibiduala izango da.

Bukaera: Irakasleak ikasleek egiten dutena behatzen arituko da bitartean eta esku hartu behar duen momentuan egingo du, batez ere arazoak sortzen baldin badira. Zuzenketa, arbela digitalaren laguntzaz egingo da, non irakasleak ikasleek esaten dituzten aditzak bertan jarriko dituelarik, horrela guztiek ikusteko aukera izanik.

Denbora: Jarduera hau burutzeko ikasleek 30 minutu izango dituzte.

Materiala: Arbela digitala, esaldiak, koaderno eta arkatza.

Esaldiak:

-Gurasoek auzoko afarira joango garela esan _____ eta gu oso pozik _____.

-Gure auzoko lagunekin egoteko aukera izango _____ eta elkarrekin gustura pasatuko _____.

-Gaua iristean gurasoek jantzi beharreko arropa eman _____ eta guk txandalarekin joan nahi genuela esan _____.

-Azkenean beraiek esandako arropa jantzi _____ eta festara gogoekin joan _____.

-Festan oso ongi pasa _____ eta guztiak oso nekaturik etxeko bidean _____ orain.

dugu	digute	gaude	dugu	digu	geunden
gaude	diegu	dugu	gara	ziguten	dugu

12. jarduera: Aukeratu erantzun zuzena:

Helburua: Ikasleak esaldiak osatzea aukera egokia jarriz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakaslea ikasleei esaldien eta aukeren fitxa banatuko die. Ondoren, adieraziko die, esaldi bakoitzean aukera egokia jarri behar dutela, beti ere kontuan izanik esaldiko aditzaren aldia. Hau da, koherentzia izan behar du esaldiko aditzaren eta aukerakoen artean.

Garapena: Ikasleek fitxako esaldiak eta aukera irakurriko dituzte hasieran, ondoren, beraientzat egokiena den aukera jarriko dute. Hori egin ondoren, berriro irakurriko dituzte esaldiak, baina oraingo honetan aukerak kontuan hartu. Hori egiten ari direnean ziurtatuko dute egindako lana ongi egin duten ala ez. Ariketa hau bakarka egingo dute.

Bukaera: Irakasleak, ikasleen zalantza guztiak adieraziko ditu, baita egiten dutena behatu ere. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dute ariketa, eta behin zuzendu ondoren irakasleak erantzun egokiak errepikatuko ditu, guztiek zuzendu dutela ziurtatzeko.

Denbora: Jarduera hau egiteko, ikasleek 30 minutu izango dituzte.

Materiala: Fitxa eta arkatza.

Fitxa:

1) Aitonak guri festa non den galdetu digu eta guk _____

- a) auzoko elkartean dela esan genion.
- b) auzoko elkartean dela esango diogu.
- c) auzoko elkartean dela esan diogu
- d) festarik ez dagoela esan genion.

2) Gure lagunek zergatik joan ginen hain dotore galdetu digu eta guk _____

- a) gurasoek horrela joateko esan digutela esan diegu.
- b) gurasoek horrela joateko esan digutela esango diegu.
- c) gurasoek horrela joateko esan digutela esan genien.
- d) gurasoek txandalarekin joatea debekatu zigutela esan genien.

3) Etxera iritsitakoan amonak zer moduz pasa dugun galdetu digu eta guk _____.

- a) oso ongi pasa dugula esango diogu.
- b) oso ongi pasa dugula esan diogu.
- c) oso ongi pasa dugula esan genion.
- d) aspertuta egon ginela esan genion.

4) Etxera iritsitakoan gurasoek isilik sartzeko esan digute _____.

- a) aitona-amonak lotan daudelako.
- b) aitona-amonak lotan zeudelako.
- c) oso berandu zelako.
- d) bizilaguna lotan zegoelako.

5) Gelara sartu ginenean nire anaiari galdetu nion festan zegoen ile luzeko neska nor zen eta hark _____.

- a) txikitan berarekin ikasi zuela esango dit.
- b) txikitan berarekin ikasi zuela esan zidan.

c) txikitan berarekin ikasi zuela esan dit.

d) betiko lagunak direla esango dit.

BALIABIDE ANAFORIKOAK

3.mailako ikasleentzat egokituriko ariketak

Argibideak: Erreferentzia mekanismoen lanketarekin hasteko, hasieran, izenordainak zer diren azalduko zaie ikasleei, eta ondoren, hasierako hiru ariketak sarrera ariketa bezala izanen dira. Behin horiek egin ondoren, mekanismo horiek esaldietan duten erreferentzia funtzioa lantzeko ariketa ezberdinak agertuko dira, hala nola, hutsuneak betetzea, okerrak zuzendu eta erreferentzia egokia aurkitzeko ariketa.

1. jarduera: Izenordainak lantzen!

Helburua: Ikasleak ondoren erabiliko diren izen ordainen ezagutza edo birgogoratzea. Esaldietan ongi adieraztea zein den markatu behar duen hitza.

Gaitasunak: 1, 4, 7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak izenordainen inguruko azalpentxo bat emango die. Irakasleak izenordainek duten funtzioa azalduko die, hau da, izenordainek esaldiko izena ordezkatzeko dutela esango die eta adibide batzuk jarriko ditu ikasleek uler dezaten (*ikus.4.eranskina*). Irakasleak eranskin horretan agertzen dena azalduko die. Bertan, ikono ezberdinak agertzen dira non izenordain ezberdinak adierazten dituzten.

Garapena: Jarduera honetan ikasleek esaldietako izenordainak identifikatu beharko dituzte. Hasierako ariketa denez, eta hirugarren mailako liburuetan lantzen ez denez, guztien artean egin eta zuzenduko dutela, horrela sor daitezkeen dudak argituko dira. Jarduera arbela digitalean egingo da, hau da, ahoz esango dituzte, eta bitartean beraien koadernoan apuntatzen joango dira.

Bukaera: Ariketa guztien artean egingo denez, irakasleak zalantzak sortzen diren edozein momentutan interbenitu dezake, horretaz gain, komenigarria iruditzen zaion momentuan ikasleei izenordainen inguruan galderak egin ditzake.

Denbora: Jarduera hau egiteko, gutxienez saio bat beharko da.

Materiala: Ikasleek koadernoak beharko dute eta bertan idazteko arkatza. Horretaz gain, arbela digitala erabiliko da eta bertan jarriko diren esaldiak.

Arbelean proiektatuko diren esaldiak:

- Ni goizeko zortzietan altxatu naiz eta hark oparitutako txandala jantzi dut.
- Haiek atzo mendian egon ziren, eta eguraldi ona egiten zuenez oso ongi pasa zuten.
- Badakigu hura ez dela gure laguna, haiek esan digute.
- Guk leihoa hori puskatu ez badugu eta hark puskatu ez badu nork puskatu du?
- Aste honetan zuek oportetara joango zarete, gu berriz herrian geratuko gara.
- Hura hamabigarren solairuan bizi den bizilaguna dela diote.
- Atzo goizean, ni aitonaren baserrira joan nintzen.
- Zuk beti lehena izan behar duzu, bestela haserretzen zara.
- Haiek irakasleari oparitxo bat egitea erabaki dute.
- Hura, zuen jarritako tranpan erori da.

2. *jarduera: Baietz asmatu!*

Helburua: Ikasleek beheko taulan agertzen diren izenordainak ezagutzea eta toki egokian kokatzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ariketa egiten hasi aurretik, esaldiak agertzen diren fitxa banatuko du, non beheko esaldiak eta taula agertzen diren. Hori egon ondoren, ikasleei azalduko die zer egin behar dute, hala nola hutsuneak bete.

Garapena: Ikasleek oraingoan, hutsuneak betetzeko esaldiak egin beharko dituzte, horretarako behean agertzen den taulako izenordainez baliatuko dira. Beraz, ariketa honetan, hutsuneetan izenorde egokia sartu beharko dute. Hori egiteko, esaldiak fitxa batean emango dizkie irakasleak. Jarduera hau bakarka egingo dute.

Bukaera: Zuzenketari dagokionez, hasieran talde txikietan bilduko dira eta bakoitzak jarri duena adieraziko du, horrela konparatuko dute bakoitzak zer jarriko duen eta emaitzak ezberdinak baldin badira adostasun batera iritsi beharko dira guztiak berdina jarriz. Behin hori egin ondoren, guztiak batera ozenki zuzenduko dute.

Denbora: Ikasleek 35 minutu izango dituzte.

Materiala: Esaldiak agertzen diren fitxa eta arkatza.

Esaldiak:

- ____ hirugarren mailako ikaslea naiz eta zortzi urte ditut.
- Atzo goizean ____ amarekin erosketak egitera joan zen.
- Hurrengo igandean ____ niri mendira joateko proposamena egin didazu.
- Bihar goizean eskolara ez direla joango esan dute ____.
- Ostiralean _____ amonaren etxera joango gara bere urtebetetzea ospatzera.
- Irakasleak dio ____ izan dela baloia teilatura bota duena.
- ____ ez dugu gertatutakoaren berri izan gaur arte.
- _____ diozu gaur ez dela musikako klaserik egongo.
- Nire ustez, _____ gertatutakoaren berri dakizue.
- _____ izan dira txokolatezko tarta jan dutena.

guk	hura	zuk	zuek	gu
haiek	ni	zuk	haiek	hura

3. *jarduera: Identifikatu aditzondoak!*

Helburua: Ikasleek testuko aditzondoak identifikatzea.

Gaitasunak: 1, 7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Erreferentzia mekanismoen sarrerako ariketei bukaera emanez, irakasleek testu bat emango die ikasleei non aditzondoak identifikatu beharko dituzten. Hori

egiteko, irakasleak hasieran testua banatuko die eta ondoren guztien artean irakurriko dute.

Garapena: Irakurri ondoren, ikasleek testua berriro irakurriko dute, eta bertan daude aditzondoak identifikatuko dituzte. Ondoren, ikasleak aditzondo bakoitza dagokion tokian sailkatuko du. Jarduera hau, binaka egingo dute identifikatzeko orduan arazoak sor daitezkeelako ikasleen artean.

Bukaera: Ariketa bukatu ondoren, guztien artean zuzenduko dute gelan. Horretaz gain, ikasleek sailkapena edo identifikazioa egiteko orduan zerbait ulertzen ez badute, irakasleak lagunduko ditu, ariketaren edozein momentutan.

Denbora: Ariketa hau egiteko 40 minutu izango dute.

Materiala: Testua eta sailkapenerako taula duten fitxak emango zaizkie ikasleei. Eta hori osatzeko, ikasleek arkatza erabiliko dute.

Testua: *Aurreko asteburuan, nire gurasoak eta ni mendira joan ginen. Han, animalia asko ikusi genituen eta argazki pila bat atera genituen. Bidean aurrera gindoazela, gure ondoan suge bat ikusi genuen, beltz kolorekoa eta handik bost minutura urtxintxa txiki bat. Guztiak harriturik geratu ginen mendi hartan zeuden animaliez. Ordubete pasata mendi tontorrera iritsi ginen eta amak zera esan zuen:*

-Hemen hamaiketakoa hartuko dugu, eta gero bueltan jaitsiko gara.

Hiruok hamaiketakoa hartu genuen eta ordu erdi barru mendian behera abiatu ginen etxe aldera. Bidean gindoazela, aitak esan zidan, nire ondoan beste urtxintxa bat zegoela, amak kamera atera eta argazkia egin zion. Hortik ordu eta erdira etxera iritsi ginen.

4. *jarduera:* *Osatu testua aukera egokiena hautatuz.*

Helburua: Ikasleek testuko hutsuneetan erantzun egokia jartzea.

Gaitasuna: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei fitxa batean testua emango die. Bertan zenbaki batzuk agertuko dira eta beheko aldean zenbaki bakoitzari dagozkion aukerak. Eman ondoren, guztiek batera irakurriko dute testua, baita aukerak ere.

Garapena: Ikasleek testua berriro irakurri beharko dute. Ondoren, hutsune bakoitzean dagokion izenordea jarri behar dute. Horretarako testuingurua kontuan hartu beharko dute. Esan, zenbaki bakoitzeko hiru aukera eskainiko zaizkiela eta egokiena dena aukeratu beharko dute. Ariketa hau, banaka egin behar dute ikasleek, horrela ikusiko baita, testuaren erreferentzia maila ongi ulertzen duten ala ez.

Bukaera: Ariketa honen zuzenketa egiteko, ikasleak talde txikitan bilduko dira eta komunean jarriko dute egindako guztia. Hori egin ondoren, irakaslearekin batera guztien artean zuzenduko dute. Irakaslearen eginbeharrari dagokionez, behatzailea izango da, hau da, momentu guztietan ikasleek egiten dutena behatuko du, horrela orokorrean arazoren bat ikusten badu interbenitzeko.

Denbora: Ikasleek 40 minutu izango dituzte ariketa hau egiteko. Horretaz gain, zuzentzeko beste hamar minutu emango zaizkie, horren artean ikasleek izan dituzten zailtasunak komentatzeko aukera egonen delarik.

Materiala: Irakasleak banaturiko fitxa eta hori egiteko arkatza.

Testua: Txinako iparraldean, Harbin izeneko herrian oso nekazari pobreak bizi ziren.

Urteberria _____ (1) _____ laster ospatu behar zuten baina urte horretako uzta oso eskasa izan zenez, _____ (2) _____ ez zeukaten dirurik koloretako faroltxoak erosteko.

Herritarrak oso triste zeuden, baina egun batean Sanghua ibai izoztuari begira zeudela, nekazari bati ideia bat bururatu zitzaion. Pentsatu eta egin! _____ (3) _____ ontzi batera ura bota zuen, ura izoztu ondoren izotz puska ontzitik _____ (4) _____ atera zuen eta _____ (5) _____ zulo bat egin zioten guztion artean, kandela sartzeko. Gero, _____ (6) _____ bere etxeko atarian eskegi zuen.

_____ (7) _____ ikusita, _____ (8) _____ ekin zioten lanari, eta _____ (9) _____ izotzezko faroltxoekin kaleak apain-apain jantzi zituzten.

Gaur egun, urtarrilaren 5etik aurrera, Izotzaren eta Elurraren jaialdia _____ (10) _____ ospatzen duten Harbinen.

- | | | | |
|-------------------------------------|-------------------------------------|-----------------------------------|--------------------------------------|
| 1) a: hark
b: horiek
c: haiek | 2) a: haiek
b: hura
c: horrek | 3) a: hura
b: haiek
c: hark | 4) a: hark
b: horrek
c: horiek |
| 5) a: hura
b: haiek
c: horrek | 6) a: hauek
b: hori
c: hark | 7) a: hau
b: horiek
c: hura | 8) a: hark
b: horiek
c: haiek |
| 9) a: hauek
b: hori
c: haiek | 10) a: hura
b: haiek
c: hark | | |

5. jarduera: Zuzendu okerrak!

Helburua: Ikasleek esaldietan adierazten diren okerrak modu egokian zuzentzeko gai izatea.

Gaitasuna: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalean esaldiak proiektatuko ditu. Eta egin beharrekoa azalduko du, zehazki esaldietan beltzez agertzen diren hitzak zuzendu beharko dituzte. Baina ariketa egiten hasi aurretik, irakasleak esaldiak irakurriko ditu eta okerrak dauden tokian ongi markatuko du.

Garapena: Ikasleak esaldiak berriro irakurri behar dituzte eta ondoren okerrak dauden tokian egokiak diren hitzak pentsatu eta jarri beharko dituzte. Ondoren, berriro irakurri beharko dituzte esaldiak eta zehaztu beharko dute koerreferentzia egokia den edo ez. Esaldiak, koadernoan kopiatu beharko dituzte, eta ondoren beheko aldea egokia den hitza idatziko dute. Ariketa honek zailtasun puntu bat duenez, hitzak pentsatzeko orduan, hiru lan egingo dute. Jarduera egiten ari diren bitartean irakaslea behatzaile lanetan ariko da, zalantzak sortzen diren momentuan interbenitzeko.

Bukaera: Esaldiak guztien artean zuzenduko dituzte eta ondoren, ikasleen zalantzak zeintzuk diren adierazteko aukera izango dute ikasleek.

Denbora: Ariketa konplikatua denez, saio osoa utziko zaie ikasleei ariketa burutzeko.

Materiala: Arbela digitala eta bertan proiektatuko diren esaldiak, ikasleen koadernoak eta bertan idazteko arkatza.

Esaldiak:

a) Mikelek bere ondoan utzi zuen sagarra. Bere laguna etorri eta eskatzen dio ea emango dion, eta **haiak** bai hartu esan dio.

b) Ane eta Amaia hizketan ari dira. Momentu horretan, lagun bat etorri eta galdetzen die ea zeri buruz hitz egiten ari diren. Orduan **hark** esan zioten ez zela ezer garrantzitsua, lasai egoteko.

c) Anderren ondoan hiru liburu daude, Jonek eskatzen dio ea bere ondoan daude hiru liburu **hauek** pasatzen ahal dizkion.

d) Nirekin dauden hiru lagun **horiek** txikitako lagunak dira. **Hark** txikitan nirekin ikasten zuten.

e) Han urruti dagoen mutil **hau** iaz ezagutu nuen kanpamentu batean.

6. *jarduera:* Ze pertsoneri buruz ari dira izenordainak!

Helburua: Ikasleak gai izatea testuaren barruan izenordainek zeri erreferentzia egiten dion jakiteko.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testu bat irakurriko die ikasleei, non ikasleak jardura bat burutu beharko duten. Ondoren, testu hori ikasleei emango die irakasleak fitxa batean, eta egin behar dutena azalduko die, beltzez agertzen diren hitzetan egokia den erreferentzia aukeratu zehazki.

Garapena: Ikasleek testua berriro irakurri beharko dute. Ondoren, testuan beltzez agertzen diren hitzak, izenordainak zehazki eta beheko aukerekin, erreferenteekin, hain zuzen, ordezkatu beharko dituzte, horretarako, izenordain bakoitzeko hiru

erreferente aukeran izango dituzte. Jarduera hau banaka egingo dute ikasleek eta irakaslearen laguntza izango dute ariketa egiteko.

Bukaera: Hasieran ikasleak hiru pertsonetako taldean bilduko dira, eta bakoitzak jarri dituen aukerak komunean jarriko dituzte. Hori egin ondoren, gela guztien artean zuzenduko dute, bakoitzak berea zuzentzen duelarik.

Denbora: Ariketa hau egiteko 40 minutu beharko dituzte lana egiteko.

Materiala: Ariketa agertzen den fitxa eta arkatza.

Testua: Behin batean, Maddiren aita, Maddirekin erosketak egitera joan zen. Erosketak egiten ari zirelarik, **hark₁**² txokolatea erosteko esan zion. Aitak ezetz esan zion eta **hark₂** beste zerbait erosiko ziola esan zion. Erosketak egin zituzten eta ez zion ezer ere erosi, orduan **hura₃** triste geratu zen. Etxera iristean, amak **hari₄** galdetu zion zergatik zegoen triste. Orduan **hark₅** esan zion aitak ez ziola ezer ere erosi. Hori entzundakoan aitari esan zion ea zergatik, eta **hura₆** isil isilik gelara joan zen.

1) a: Aitak

b: Maddik

c: Amak

2) a: Aitak

b: Maddik

c: Amak

3) a: Aita

b: Maddi

c: Ama

4) a: Maddiri

b: Aitari

c: Amari

5) a: Aitak

b: Amak

c: Maddik

6) a: Ama

b: Aita

c: Maddi.

7. jarduera: Bete hutsuneak!

Helburua: Ikasleak testu hutsuneak betetzea modu egokian, aukera onena hautatuz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

² Zenbakia azpi indize bezala agertzen da, umeek jakiteko zein multzotik hartu behar duten hutsunea betetzeko hitza.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testua fitxa batean emango die ikasleei. Ondoren, guztien artean irakurriko dute eta irakasleak adieraziko die zenbakiak agertzen diren tokian izenordainak edo aditzondoak jarri behar dituzten. Hori egin ondoren, ikasleak jardunean hasiko dira.

Garapena: Ikasleei fitxa banatuko zaie eta berriz irakurri behar dute testua. Ondoren egokia den aukera aukeratu beharko dute. Hori egin ondoren testua berriz irakurri beharko du bakoitzak eta zenbakiak izenordain edo aditzondoekin ordezkatzuz, horrela ikusiko baitute ongi ari den edo ez.

Bukaera: Jarduera bukatu ondoren, guztien artean zuzenduko dute, ikasle bakoitzak testuko zati bat irakurriko duelarik eta zenbakira iristen denean zer jarri duen esanez. Hori egin ondoren, irakasleak ziurtatuko du guztiek ongi zuzendu dutela, horretarako, zenbaki bakoitzean erantzun egokia zein den errepikatuko du.

Denbora: Ariketa hau burutzeko, 40 minutu izango dituzte ikasleek. Ondoren, zuzenketari beste 10 minutu emango zaizkio.

Materiala: Ariketaren fitxa eta egiteko arkatza.

Testua: Behin batean, herriko lorezaina bertako lorategiak ikustera joan zen. ____ **(1)** ____ zegoela, lorategiko bisitatzen ari zen emakume bat ikusi zuen. Emakumea beregana hurbildu eta honako hau galdetu zion: Kaixo! Nola dute izena ____ **(2)** ____ dauden landare hauek. Orduan gizonak zer esan zion: hemengo zuhaitz txiki ____ **(3)** ____ bonsaiak dira. Han ikusten dituzun lore urdin ____ **(4)** ____ berriz liliak dira. Urrutian ikusten den zuhaitz altu altua ____ **(5)** ____ sekuoia erraldoia da. Bonsaien ondoan ikusten dituzun lore zuri ____ **(6)** ____ Afrikako orkidea da. Bidearen ondoan dagoen ale gorridun zuhaitz ____ **(7)** ____ zuen negartiak dira. Guztiak azaldu ondoren, emakumeak eskerrak emanez aldendu zen bertatik.

1) a: hemen
b: hor
c: han

2) a: hor
b: hemen
c: han

3) a: hau
b: hauek
c: horiek

4) a: horiek
b: hori
c: haiek

5) a: hau
b: hura
c: hori

6) a: hura
b: hori
c: hau

7) a: hauek
b: hura
c: horiek

8. jarduera: Zuzendu okerrak.

Helburua: Ikasleek esaldietako aditzondo okerrak zuzentzea, aditzondo egokia erabiliz.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalaren bitartez ikasleei esaldiak adieraziko dizkie. Irakurri aurretik, esango die esaldietako aditzondoak beltzez markaturik daudela, ez baitute esaldiko erreferentzia ongi egiten. Horregatik, aldatu beharko dituztela. Horretarako, irakasleak adibide bat jarri beharko du, ikasleek hobeto uler dezaten egin behar dutena. Hori egin ondoren, hasierako irakurketa egingo du irakasleak.

Garapena: Ikasleek beraien fitxan, arbel digitalean agertzen diren esaldiak kopiatuko dituzte, dauden moduan. Hori egin ondoren, bakoitzak bere kabuz, beltzez dauden hitzak ordezkatu beharko dituzte egokia den beste batekin. Hori egiteko, beraiek pentsatu beharko dituzte hitzak. Jarduera bakarka burutuko dute, jadanik, antzeko bat taldeka egin dutelako eta zer egin behar duten dakitelako.

Bukaera: Irakasleak behatzaile lanetan ibiliko da, hau da, ikasleak jarduera egiten duten bitartean irakasleak behatu egingo du, horrela zalantzak sortzen diren momentuan interbenitzeko. Zuzenketari dagokionez, ikasleek bukatu ahala bikoteka jarriko dira, eta bakoitzak zer jarri duen adieraziko dute. Ondoren, guztien artean zuzenduko dute egindakoa.

Denbora: Ariketa honetan, ikasleek asko pentsatu behar dutenez, 30 minutu utziko zaizkie lana egiteko.

Materiala: Arbel digitala, esaldiak, ikaslearen koaderno eta arkatza.

Esaldiak:

- a) *Amaia futbolean ari da eta baloia ostikada batez zelaiko beste puntara bota du. Bere laguna etorri denean, galdetu dio baloia non zegoen, eta Amaiak **hemen** dagoela esan dio.*
- b) *Mikelek, aitaren ondoan izozkiaren papera utzi zuen. Aita konturatu zenean esan zion: Etor zaitez hona eta jaso ezazu **han** dagoen papera eta bota horko zakarrontzira.*
- c) *Maiderekin bere gurasoei esan die **atzo** eguraldi ona egiten badu, hondartzara joango direla.*
- d) *Mikel ia egunero futbolean jolastera doa. Bere osabak egun batean galdetu zion astean zenbat aldiz joaten zen jolastera eta Mikelek **gutxitan** joaten zela esan zion.*
- e) *Ander etxeko lanak egin ondoren ateratzen da kanpora lagunekin egotera beti. Bere lagun batek deitu dio eta esan dio berarekin geratu nahi duela. Orduan Anderrek baietz esan zion, baina etxeko lanak egin eta **lehen** geratuko zirela.*

9. *jarduera. Zeri edo Nori buruz ari dira?*

Helburua: Testua agertzen diren aditzondoak eta izenordainen erreferentzia egokia aukeratzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak fitxa batean, jarraian agertuko den testua eta aukerak banatuko dizkie ikasleei. Ondoren, testua aditzondoekin eta izenordainekin irakurriko du, zalantzarik baldin badago hiztegi aldetik, azaltzeko. Hori egin ondoren, irakasleak azalduko die ariketa nola egin behar dute, zehazki beltzez agertzen diren aditzondoak beheko aukerarengatik aldatzea.

Garapena: Ikasleek aditzondoak eta izenordainak bere erreferenteagatik aldatu beharko dituzte. Hori egiteko, aditzondoak eta izenordainak beltzez agertuko dira, eta bakoitzak zenbaki txiki bat izango du. Zenbaki horrek, irakasleak beheko aukeretan aditzondo edo izenorde baten erreferentzia zein multzotan aukeratu behar duen adierazten du. Hori egin ondoren, testua berriro irakurriko dute, baina orainoan,

aditzondoaren edo izenordainaren tokian erreferentea jarriz. Hori egiterakoan, ongi aukeratu duten edo ez ikusiko dute.

Bukaera: Ariketa bukatutakoan, guztien artean zuzenduko dute. Ondoren, irakasleak berriro irakurriko du testua, baina oraingoan aditzondoaren tokian egokia den aukera jarriz. Horrela, ikasle batek zalantzak izan baditu aurreko zuzenketa, oraingoan egokia dena zein den zehaztu dezake.

Denbora: 30 minutu izango dituzte jarduera burutzeko, eta beste 10 minutu eskainiko zaio zuzenketa egiteko.

Materiala: Irakasleak emandako fitxa eta arkatza.

Testua: *Jokin eta Aroa, urtero, udan osabaren etxera joaten dira Donostiara. Han₁ lagunak dituzte eta oso gustura pasatzen dute beti. Baina, aurten, gurasoek haiei₂ esan diete ez direla Lekeitiora joango, Mallorcara oporretan joatea pentsatu baitute. Hasieran, haiek₄, oso triste jarri ziren ez bai zituzten urteroko lagunak ikusiko. Orduan, gurasoek azaldu zieten han₅ ere gustura egongo zirela eta hango₆ toki ezberdinak ezagutuko zituztela. Baina, hala ere, haiek₇ Donostiara joan nahi zuten urtero bezala.*

1) a: Mallorcan
b: Lekeition
c: Etxean
d: Herrian

2) a: Jokini eta Aroari
b: Gurasoei
c: Aroari
d: Jokini

3) a: Aroak
b: Jokinek
c: Gurasoek
d: Jokinek eta Aroa

4) a: Lekeition
b: Bartzelonan
c: Mallorcan
d: etxean

5) a: Mallorcako
b: Etxeko
c: Herriko
d: Lekeitioko

6) a: gurasoek
b: osabak
c: Jokin eta Aroak
d: lagunak

10. jarduera: *Ea zer kontatzen digun nekazariak!*

Helburua: ikasleak testu hutsuneak betetzea modu egokian, aukera onena hautatuz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Ariketa honetan, irakasleak testua banatuko die ikasleei. Ondoren, irakasleak ikasleei esango die, zenbakien tokietan beheko aukeretatik hoberena aukeratu beharko dutela, beti ere, zenbaki bakoitzaren multzotik.

Garapena: Ikasleek testua jasotzen dutenean eta irakaslearen azalpena entzun ondoren, bakoitzak bere testua irakurriko du bi aldiz. Lehenengoan, ideia orokor bat hartzeko eta bigarrenetan berriz, aukeraketa egiteko. Aukeraketa egiteko, zenbaki bakoitzeko hiru aukera dituzte eta egokien geratzen dena aukeratu beharko dute ikasleek. Jarduera hau banaka egingo dute, aurretik antzeko bi egin dituztelako eta ariketa honen xedea zein den badakitelako.

Bukaera: Irakasleak ariketa honetan paper pasiboa izanen du, hau da, ez du inolako esku hartzerik egingo, horrela ikusiko baitu nork menperatzen dituen mota honetako ariketak eta nork behar duen sakontze gehiago. Zuzenketari dagokionez, guztion artean egingo da, eta ikasleei dituzten akatsak apuntatzeko eskatuko zaie, gero irakasleak ikusteko.

Denbora: 40 minutu eskainiko zaio ariketari.

Materiala: Fitxa eta arkatza.

Testua: Behin batean, bazen nekazari txiro bat, oso txiroa. _____ (1) _____ txabola batean bizi zen. Behin azokara bidean zihoala, _____ (2) _____ gizon bat ikusi zuen txakur bati ostikadak ematen. Nekazariak, zeraman diru guztia eman zion _____ (3) _____ txakurra bakean utzi zezan. _____ (4) _____ bidean aurrera zihoala, gauza bera gertatu zitzaion katu, sagu eta suge batekin. _____ (5) _____ animaliak laguntzeagatik esku hutsik joan zen etxera. Baina nekazariak, eraztun magiko bat zuen eta bira ematean _____ (6) _____ eskatzen zuena ematen zion. Halako batean, zelaiko zuhaitzetako hostoak urrezkoak bihurtzea eskatu zion eraztunari eta bira eman ondoren _____ (7) _____ eskatutakoa lortu zuen. Orduan, inguruko aberatsak hurbildu ziren eta nekazariaren altxorra bereganatu nahi zuten. _____ (8) _____ eraztuna kendu zioten eta eskatzen hasi ziren. Asko saiatu ziren baina



ez zuten ezer ere lortu, orduan, ____**(9)**____ soldaduei etortzeko esan zieten , eta nekazaria eramateko. Bitartean, ____**(10)**____, bere lagunak ziren animaliei bera eramaten zuten bitartean salbatzera joateko eskatu zien.

1) a: hau	2) a: hark	3) a: hari	4) a: hura	5) a: ni
b: hori	b: nik	b: honi	b: hori	b: hura
c: hura	c: zuk	c: niri	c: hau	c: hori

6) a: hark	7) a: hark	8) a: hark	9) a: haiek	10) a: hura
b: horrek	b: haiek	b: haiek	b: horiek	b: hark
c: honek	c: horiek	c: guk	c: zuek	c: han.

11. jarduera: Okerrak zuzendu.

Helburua: Ikasleak esaldietako okerrak modu egoki batean zuzentzen dituzte, horretarako egokia den hitzak erabiliz.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketen azalpena:

Hasiera: Irakasleak mota honetako ariketetan bezala, esaldiak arbelean jarriko ditu, non esaldiko okerra beltzez agertuko den. Hori egin ondoren, ikasleek zer egin behar duten azalduko die, zehazki hitz horiek ordezkatzea. Esaldiak irakasleak proiektorean jarriko ditu eta ikasleek bertatik kopiatu beharko dituzte.

Garapena: Ikasleek esaldiak beraien koadernoan kopiatu beharko dituzte pantailan agertzen diren bezala, akatsarekin. Ondoren, esaldiak irakurriko dituzte eta egokiena den hitza aukeratu eta koadernoan jarriko dute. Oraingo honetan, ariketa hau banaka burutuko dute, ikusteko ze gaitasunak dituzten ordezkapen horiek egiterako orduan.

Bukaera: Irakasleak behatuko ditu ariketa nola egiten ari diren, eta orokorrean arazo edo zalantzaren bat ikusten badu interbenitu dezake zalantza hori argitzeko. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dituzte ariketak. Ondoren, irakasleak erantzun zuzenak berriro adieraziko ditu norbaiti zerbait falta bazaio jartzeko.

Denbora: Pentsatzeko ariketa denez, ikasleek 40 minutu izango dute ariketa burutzeko.

Materiala: Arbel digitala, koaderno, arkatza eta irakasleak eginiko esaldiak.

Esaldiak:

a) Aberatsek nekazariak botere magikoak zituela ikusi zutenean, **hark** beregana joatea erabaki zuten, nekazariak zerbait kontatuko zien gogoarekin.

b) Ume bat kaniketan jolasten ari da eta Amaia hurbildu da eta galdetu dio ea berarekin jolasten ahal duen eta **haiak** ezetz esan dio.

c) Nekazariak, aberatsei ez zien kasurik egin eta haserretu zirenean eraztuna katuari eman zion bada ez bada eta **hori** sagua eta sugea harturik ihes joan zen.

d) Gaur eguraldi ederra egiten du, eta nire ahizpa bere lagun batekin hondartzara joatea pentsatu dute. Beste lagun batek deitu dio, ea beraiekin joan ahal duen galdetuz, eta **haiak** ezetz esan dio.

e) Nekazaria gaztelura eraman zuten, eta bertako kartzelan sartu zuten. Animaliak **hemen** ikusi zutenean salbatzera joan ziren.

12. jarduera: Ea asmatzen duzun nortaz ari den!

Helburua: Ikasleek testuko erreferentzia ongi mantentzen dutela ziurtatzea, aukera zuzena hautatuz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei testu bat emango die non izenordainak agertzen diren batez ere. Ondoren, adieraziko die izenordain bakoitzaren erreferente egokia aukeratu behar dutela. Horretarako, izenordain bakoitzak zenbaki bat izango du, beheko aukeretako multzoen berdina.

Garapena: Ikasleek testua irakurri beharko dute, egiten hasi aurretik zeri buruzkoa den jakiteko eta bertan agertzen diren pertsonaiak ezagutzeko. Hori egin ondoren, izenordain bakoitzari dagokion multzoa zein den kontuan izanik, zenbaki berdina bai izen ordainak eta baita multzoak ere, erantzun egokia aukeratu beharko dute. Ariketa hau, banaka egingo dute.

Bukaera: Ariketa hau guztien artean zuzenduko dute, non irakasleak erantzun egokiak arbelean idatziko dituen.

Denbora: Ariketa hau burutzeko, ikasleek 30 minutu izango dituzte.

Materiala: Fitxa eta arkatza.

Testua: Egun batean, Markel erosketak egitera joan zen. Etxerako bidean, **hark₁** parteka zeharkatu zuen. Zapata berriak zeramatzan jarrita eta **hari₂** min handi handia ematen zioten, batez ere ezkerreko hankak. Egun hartan, minaren minez, parkeko eserleku batean eseri zen **hura₃**, eta ezkerreko zapata kendu zuen.

Mina pasatutakoan, berriro zapata jantzi zuen eta abiatzean neskato bat hurbildu zitzaion. **Hark₄** nola zuen izena galdetu zion eta **hark₅** Markel izena zuela esan zion eta neskatoak berriz Maddi izena zuela esan zion. **Haiek₆** gertatzen zitzaiena elkarri kontatu zioten eta biak barrezka hasi ziren. Orduan, **haiek₇** zapatak hankaz aldatu zituzten batek ezkerrekoa eta beteak eskuinekoa. Eskolara iristean, bertako umeak harritu ziren eta **haiek₈** esan zuten Ameriketatik etorritako moda zela.



- | | | | |
|----------------|---------------|-------------|----------------|
| 1) a: Maddik | 2) a: Markeli | 3) a: Maddi | 4) a: Maddik |
| b: zapatak | b: zapatari | b: Markel | b: Markelek |
| c : Markelek | c: zuri | c: zapata | c: aitak |
| 5) a: Markelek | 6) a: zapatak | 7) a: biak | 8) a: umeek |
| b: Maddik | b: Maddik | b: Markelek | b: biek |
| c: amak | c: biak | c: Maddik | c : irakasleek |

4.mailako Ikasleentzat proposaturiko ariketak

Argibideak: Maila honetan, gehienbat erreferentzia mekanismoek testuen barruan eta esaldien barruan duten funtzioa landuko da ariketa ezberdinen bidez, batez ere

korrelazioa landuko delarik. Horretarako, ariketa ezberdinak planteatuko dira, hala nola, esaldiak zuzentzea, hutsuneak betetzea, erreferentea zein den jakitea e.a.

1. jarduera: Osatu testua!

Helburua: Ikasleek testuetako hutsuneak modu egokian betetzen dituzte, egokiena den izenordaina erlazionatuz.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Lehenik, irakasleak testua emango die ikasleei. Ondoren, irakasleak ikasleei adieraziko die testuan zenbaki batzuk daudela eta beheko aldean taula batean bertan jarri beharreko izenordeak agertzen direla alde batean eta bestean hutsune bakoitza bere zenbakiarekin. Behin hori esanda, erlazionatu beharko dituzte, hutsune bakoitza dagokion izenordearekin. Hori egiteko, hasieran testua guztien artean irakurriko dute, zalantzarik sortzen bada galdetu ahal izateko.

Garapena: Ikasleek testua berriro irakurri beharko dute, eta ondoren, beheko izenordeak egokiena den hutsunearekin erlazionatu beharko dituzte. Behin hori egin ondoren, berriro irakurriko dute testua baina kasu honetan hutsuneetan jarri dutena barne hartuz, horrela ikusiko dute ongi egin duten edo zerbait aldatu behar den. Jarduera hau banaka burutuko dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak behatzaile papera izango du, hau da, ikasleek egiten ari dutena kontrolatuko du, horrela ikusiko du arazoak nor dituen eta zertan. Horretaz gain, behar den momentuan esku hartuko du. Zuzenketari dagokionez, hasieran talde txikian zuzenduko dute ikasleek jarri dutena besteei adieraziz eta ondoren guztiek batera.

Denbora: Ariketa hau burutzeko ikasleek 40 minutu izango dituzte.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Olentzeroren istorioa:

Garai batean, maitagarri eder bat bizi zen basoan. Maitagarri guztiek bezala, _____ (1) _____ pertsona guztien arazoek arduratzen zen eta galtzagorrien laguntza izaten zuen.

Egun batean, galtzagorriek ume jaioberri bat aurkitu zuten basoan, eta _____(2)_____ maitagarriarengana eraman zuten. _____(3)_____, hunkituta umea bere babespean hartu zuten eta dohain hauek eman zizkion: maitasuna, indarra eta kuraia.



Biharamunean, _____(4)_____ basoko etxe zahar batera eraman zuten haurtxoa, seme-alabarik ze zuten bikote batengana. _____(5)_____ poz pozik hartu zuten _____(6)_____ eta Olentzero izena jarri zioten. Bertan hazi zen Olentzero.

Olentzero buruargia zen eta trebe trebea eskulanetan. _____(7)_____ egurrezko jostailu ederrak egiten zituen batez ere herriko etxe batean bizi ziren umeentzat. _____(8)_____ biziki maite zuten _____(9)_____

hark
hura
haiek
hark
hura
haiek
hark
haiek
hark

1.hutsunea
2.hutsunea
3.hutsunea
4.hutsunea
5.hutsunea
6.hutsunea
7.hutsunea
8.hutsunea
9.hutsunea

2. jarduera: Aurkitu akatsa eta zuzendu.

Helburua: Ikasleak esaldiko akatsa identifikatzeko gai da eta modu egokian zuzentzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbel digitalaren bidez ikasleei esaldi ezberdinak erakutsiko dizkie. Horretaz gain, esango die, esaldi bakoitzean okerra dagoela eta identifikatu behar dutela eta gero zuzendu.

Garapena: Ikasleek esaldiak irakurri beharko dituzte. Ondoren, koadernoan idatziko dituzte bere akats eta guzti. Hori egin ondoren, okerra identifikatu beharko dute eta egin behar diren aldaketak eginez, modu egokian zuzendu. Jarduera hau, binaka egingo dute ikasleek, zailtasuna izan dezaketelako arazoa identifikatzerako orduan.

Bukaera: Irakasleak ikasleak egiten ari dutena behatuko du, eta arazoak sortzen badira, esku hartuko du. Hori egin ondoren, guztien artean zuzenduko dute, arbela digitala erabiliz, bertan islatuko baititu akatsak non dauden eta nola ordezkatu behar diren.

Denbora: Ariketa hau egiteko 30 minutu izango dituzte ikasleek.

Materiala: Arbela digitala, ikasleen koadernoak, arkatza eta esaldiak.

Esaldiak:

a) *Udalekuetatik bueltan, tren geltokira iritsi nintzenean familia guztia han zegoen nire zain, iritsi nintzenean, hark galdetu zidaten ea zer moduz pasa nuen.*

b) *Ume batek ez zituen bere gurasoak egiten eta negar batean guregana hurbildu ze haiek eta galdetu zigun ea bere gurasoak ikusi genituen.*

c) *Gurasoek nola pasatu nuen kontatzeko esan zidaten eta hura bertan gertaturiko anekdota bat kontatzen hasi nintzen, lapur batekin gertatu zena zehazki.*

d) *Hori kontatzerakoan, hark gehiago jakin nahi zuten lapurrarekin gertatu zenaren inguruan.*

e) *Orduan, nik esan nien poliziarri deitu niola eta hiru edo lau etorri ziren eta hura galdetu zidan non zegoen lapurra eta nik jantokiko sukaldean zegoela esan nion.*

3. *jarduera: Nori buruz ari da hizketan?*

Helburua: Ikasleek testuko erreferentea nor den jakitea, horretarako behean dituzten aukera egokiak aukeratu behar dituztelarik.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testua banatuko die ikasleei eta guztien artean irakurriko dute. Hori egin ondoren, ikasleei adieraziko die, beheko aukeretatik egokiena dena aukeratu behar dutela, testuko informazioa kontuan izanik.

Garapena: Ikasleek testua berriro irakurriko dute. Ondoren, izenorde bakoitzean dagokion multzoko aukera egokien jarriko du, beti ere, testua esaten dena kontuan izanik. Hori egin ondoren, testua berriro irakurri beharko dute finkatzeko egindako aldaketak egokiak direla. Jarduera hau banaka burutuko dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak arazoak dauden momentuan esku hartuko du hauek argituz. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dute. Ondoren, irakasleak aukera egokiak berriro errepikatuko ditu.

Denbora: Ariketa burutzeko, 30 minutuko emango dira.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Jon eta Amaia kaniketan jolasten ari dira herriko parkean, kolunpioen ondoan.

Han₁ haur asko zeuden eta **haiengana₂** bi hurbildu ziren. **Haiek₃** galdetu zieten ea beraiekin jolasten ahal zuten, baina ezetz esan zioten. Orduan **haiek₄** bere amarengana joan ziren eta amari esan zioten ez ziotela **han₅** zeuden bi umeek jolasten uzten. Orduan **hura₆** **haiengana₇** joan zen eta galdetu zien ea zergatik ez ezin zuten bere seme alabak **haiekin₈** jolastu. Orduan **haiek₉** **hari₁₀** esan zioten elkarren arteko lehia egiten ari zirela kanikekin eta inork gehiago ezin zuela jolastu.

1) a: plazan
b: parkean
c: etxean

2) a: beste umeengana
b: Jon ea Amaiarengana
c: gurasoengana

3) a: bi umeek
b: Jonek eta Amaiak
c: amak

- 4) a: Jon eta Amaia
b: gurasoak
c: bi umeak
- 5) a: parkean
b: kolunpioen ondoan
c: plazan.
- 6) a: umea
b: aita
c: ama
- 7) a: Bi umeengana
b: Jon eta Amaiarengana
c: beste umeengana
- 8) a: beste umeekin
b: Jon eta Amaiarekin
c: amarekin.
- 9) a: Jon eta Amaiak.
b: Umeek
c: Gurasoek
- 10) a: umeari
b: Amari
c: Joni.

4. *jarduera: Erlazionatu hutsuneak hitz egokiarekin.*

Helburua: Ikasleek testuetan dauden hutsuneak izenordain egokiarekin erlazionatzea.

Gaitasunak: 1,7, eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak testua banatuko die ikasleei eta guztien artean irakurriko dute. Ondoren, esango die, hutsune bakoitza beheko taulan agertzen diren izenordain horietako bakoitzarekin erlazionatu behar dutela.

Garapena: Ikasleak testua berriro irakurriko du, ondoren, beheko tauletara joango da, eta hutsune bakoitzari dagokion izenordea jarriko dio, horretarako, bi taulak erlazionatu behar dituzte, zenbaki edo gezien bitartez. Hori egin ondoren, berriro irakurriko dute testua eta hutsunea izenorde egokiarekin erlazionatu duten edo ez. Jarduera hau, banaka egingo dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak ikasleak lana egiten ari diren bitartean behaketa egingo du, ongi ari diren edo ez. Ondoren, lehenengo talde txikietan bilduko dira eta bakoitzak jarri duena komentatuko dute. Hori amaitzean, guztien artean zuzenduko dute.

Denbora: 40 minutu eskainiko da ariketa burutzeko.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Antzina, txakurra baso handi eta eder batean bizi zen, bakar bakarrik. _____ **(1)** _____ basoan bizitzeko behar zuen guztia zeukan; jateko fruitu

gozoak, edateko ur garbia ... Eta den dena _____(2)_____ zen. Baina, aberatsa izan arren, _____(3)_____ ez zen batere zoriontsua, bakarrik bizi baitzen asper-asper eginda eta triste. Orduan, _____(4)_____ lagun bila hastea bururatu zitzaion. Luze jo gabe, ardia aurkitu zuen larre batean, belarra jaten. _____(5)_____ ardiari ea bere laguna izan nahi zuen galdetu zion. _____(6)_____ baietz esan zion eta txakurra etxera gonbidatu zuen. Baina gauean izan ziren kontuan! Txakurra zaunka egiten hasi zen eta ardia beldurtu zen. Ardiak isiltzeko esan zion otsoa etorriko zela eta _____(7)_____ jango zuela. Orduan txakurrak esan zion ez zuela horrelako lagun beldurturik nahi. Eta orduan, amaitu zuten _____(8)_____ arteko harremana.

hari	1.hutsunea
hura	2.hutsunea
hark	3.hutsunea
hura	4.hutsunea
hark	5.hutsunea
haiek	6.hutsunea
hark	7.hutsunea
harena	8.hutsunea

5. jarduera: Non daude okerrak?

Helburua: Ikasleak gai dira esaldietako okerrak identifikatzeko eta modu egokian zuzentzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena

Hasiera: Irakasleak esaldiak arbela digitalean proiektatuko ditu. Ondoren, esaldietan okerrak daudela adieraziko die ikasleei eta oker horiek identifikatu eta zuzendu behar dituztela esango die ikasleei.

Garapena: Ikasleek esaldiak beraien koadernoan kopiatu beharko dituzte akatsekin. Ondoren, bakoitzak berea irakurriko dute eta akatsa non dagoen identifikatu beharko dute, baita, pentsatuz, oker hori zuzentzeko aukera egokia jarri ere. Jarduera hau, banaka burutuko dute ikasleek.

Bukaera: Ariketa konplexua denez, irakasleak etengabeko laguntza emango die ikasleei, zalantzak dituzten momentuan argituz. Zuzenketa, arbela digitalean egingo dute guztiek batera. Horretarako, ikasleek egin dutena adieraziko dute eta irakasleak bitartean arbelean zuzenduko ditu, guztiek ikusi ahal izateko. Horretaz gain, jarduera zuzentzen ari diren bitartean zalantzak argitzeko aukera izango dute ikasleek.

Denbora: Ikasleei 40 minutu utziko zaie jarduera burutzeko.

Materiala: Arbela digitala, koaderno, arkatza eta esaldiak.

Esaldiak:

- a) Txakurrak bere ondoan ardia zeukan eta zaunka batean ari zenez, otsoa etorri zitzaion eta galdetu zion ea ardia non zegoen eta txakurrak han zegoela esan zion.
- b) Txakurra ardiaren lagun egin zen orduan, eta ardiak galdetu zion ea nora bidali zuen bere bila eta txakurrak hona, urrutiko zuhaitz haietara, bidali zuela esan zion.
- c) Txakurra bere etxolan zegoen eta fruitu gozoak zituen bertan, eta ardiak esan zion gose
- e) Txakurrak ardiaren zegoela eta ea fruiturik emango zion eta txakurrak bai hartu han daude.
- d) Jan ondoren biak basoan buelta bat ematera atera ziren eta urrutira animalia gehiago ikusi zituen ardiak, eta orduan txakurrari galdetu zion ea zekien hor zeuden animaliak nortzuk ziren.

galdera entzundakoan, esan zion hemen ikusten dituzun animalia haiek otsoak dira. Eta ardia izaturik bere etxera bueltatu zen.

6. jarduera: Asmatu nori buruz ari den!

Helburua: Ikasleak aukera egokiak erabiliz, testuko erreferenteak nor diren asmatzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena

Hasiera: Irakaslea ikasleei testua emango die non izenordain batzuk agertzen diren. Irakasleak esango die izenordain horiek beheko aukeretako izenekin ordezkatu behar dituztela, erreferentea mantenduz.

Garapena: Ikasleek testua irakurriko dute bi aldiz. Ondoren, izenordain bakoitza kontuan izanik, behean dauden aukeretara joko dute eta erantzun bat hautatu beharko dute. Hori egin ondoren, berriro irakurriko dute eta hor ikusiko dute, hautatutako izena egokia den hala ez.

Bukaera: Jarduera egin ondoren, guztien artean zuzenduko dute, ozenki. Horretaz gain, erantzun egoki bakoitza esatean, irakasleak errepikatuko du guztiek argi izan dezaten.

Denbora: 30 minutu eskainiko zaio jarduera hau egiteari.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Mikel eta Ane, anai arrebak dira. Egun batean **haiek**₁ etxean asper-asper eginda zeuden ez zekitelako zer egin. Orduan, biak hitz egiten hasi ziren zer egin pentsatuz. Halako batean, Mikelek Aneri gauza bat proposatu behar ziola esan zion. **Hark**₂ txakur bat nahi zuela adierazi zion **hari**₃ eta orduan gurasoekin hitz egiteko esan zion **hark**₄. Mikel, gurasoengana joan zen eta bere asmoa zein zen kontatu zien. **Haiek**₅ hasiera ezetz esan zioten **hari**₆ eta **hura**₇ burua makurturik bere arrebarengana joan zen. **Hark**₈ galdetu zion ea gurasoek zer esan zioten eta ezetz esan ziotela esan zuen. Orduan Anek, **haien**₉ artean ekarriko zutela esan zion **hari**₁₀, gurasoak enteratu gabe.

1) a: Gurasoak
b: anai arrebak
c: txakurrak
d: Ane

2) a: Anek
b: Mikelek
c: aitak
d: amak

3) a: Mikeli
b: Aneri
c: gurasoei
d: txakurrari

4) a: Mikelek
b: Anek
c: amak
d: aitak

5) a: Anek
b: aitak
c: amak
d: gurasoek

6) a: Mikeli
b: Aneri
c: txakurrari
d: bie

7) a: Ane
b: Mikel
c: gurasoak
d. txakurra

8) a: Mikelek
b: aitak
c: txakurrak
d: Anek

- | | |
|--------------------|---------------|
| 9) a: bien | 10) a: Aneri |
| b: gurasoen | b: Mikeli |
| c: aita eta Aneren | c: gurasoei |
| d: ama eta Mikelen | d: txakurrari |

7. jarduera: Osatu testua aditzondoekin.

Helburua: Ikasleek testuko hutsuneak aditzondoekin modu egokian erlazionatzea.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren azalpena

Hasiera: Irakasleak testua emango die ikasleei. Berak ikasleei testuan aditzondoak falta direla esango die eta horregatik hutsuneak daudela. Orduan, beheko tauletan aditzondoak daudela esango die eta bakoitza hutsune batekin erlazionatu behar dutela.

Garapena: Ikasleek testua irakurriko dute. Ondoren, beheko taulara joango dira eta hutsune bakoitzarekin aditzondo bat erlazionatu beharko dute. Ondoren, testua berriro irakurriko dute eta ikusi beharko dute esaldia korrelazioa mantentzen den aditzondoarekin jarduera hau banaka burutu behar dute ikasleek.

Bukaera: Irakasleak ikasleen lana behatuko du. Zuzenketari dagokionez, guztiek batera zuzenduko dute, eta irakasleak erantzun egokia errepikatzen joango da guztiek zuzendu dutela egiaztatzeko.

Denbora: 30 minutu izango dituzte ariketa burutzeko.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Behin batean, Txinako herri batean, oso jende txiroa bizi zen. _____ (1) _____ ez zuten jateko handirik orduan soroetara joan behar izaten zuten _____ (2) _____ janaria ekartzera. _____ (3) _____ etxetik oso goiz ateratzen ziren, ordu eta erdiko bidea egin _____ (4) _____ soroetara iristen ziren. Behin _____ (5) _____ egonik, buruzagiak bakoitzaren lana esaten hasten zen: zuk mutil _____ (6) _____ landareetako tomateak jaso behar dituzu, zuk neska _____ (7) _____ dauden landareak ureztatu behar dituzu.

Bakoitzari bere lana zein zen esan bezain _____(8)_____ lanean hasten ziren. Egun guztia han pasatu eta _____(9)_____, berriro etxera itzultzen ziren, bakoitzak janari poltsa bat eramaten zuelarik. Horrela ateratzen zuten bizia herri _____(10)_____ jendeak.

handik	1.hutsunea
egunero	2.hutsunea
han	3.hutsunea
ondoren	4.hutsunea
hemengo	5.hutsunea
han	6.hutsunea
hor	7.hutsunea
gero	8.hutsunea
hartako	9.hutsunea
laster	10.hutsunea

8. jarduera: Zuzendu esaldietako okerrak

Helburua: Ikaslea gai da esaldietako okerrak identifikatzeko eta zuzentzeko.

Gaitasunak: 1,4,7 eta 8.

Ariketaren azalpena:

Hasiera: Irakasleak arbela digitalean akatsak dituzten esaldi ezberdinak jarriko ditu. Ondoren, adieraziko die ikasleei esaldiek akatsak dituztela eta identifikatu eta zuzendu behar dituztela.

Garapena: Ikasleek esaldiak koadernoan kopiatuko dituzte. Ondoren, bakoitza bere kabuz irakurriko ditu eta bertan dauden akatsak identifikatu beharko ditu. Hori egin ondoren, bertan egon daitekeen aukera egokia pentsatu eta idatzi beharko dute.

Bukaera: Ikasleek irakaslearen laguntza izango dute momenturo, dituzten zalantza edo zailtasunen aurrean. Zuzenketari dagokionez, hasieran talde txikitan

bilduko dira, eta gero guztien artean zuzenduko dute, irakasleak okerrak ezabatu eta erantzun egokia arbel digitalean jarriko duelarik.

Denbora: ariketa egiteko ikasleek 40 minutu izango dute.

Materiala: arbela digitala, koaderno, arkatza eta esaldiak.

Esaldiak:

- a) Familia txiroak landetara lanera joaten ziren. Buruzagiak hark egin behar zutena esaten zien egunaren hasieran, eta ondoren, lanean hasten ziren.
- b) Lanean egun guztia pasatzen zuten han eta gaua iristen zenean buruzagiari, egindako guztia erakutsi behar zioten, eta ordainetan, haiek janari poltsa bat ematen zien.
- c) Janari poltsa hartu eta etxera ekartzen zuten eta bertan, barazki ezberdinak egoten ziren. Etxera iristean bertakoek ikusten zuten hura ekarritakoa zer zen eta guztien artean jaten zuten.
- d) Guztion artean gehiena jaten zuten, hala ere, aurreko egunerako gordetzen zuten, bada ez bada familiakoek ez bazuten janari gehiago ekartzen edo buruzagiak ez bazien ematen.
- e) Buruzagiak langile bati esan zion zoaz han ikusten dituzun zuhaitz hauei adarrak moztera. Hura aizkora hartu eta hara joan zen.

9. jarduera: Aditzondoek edo izenordainek zeri egiten diote erreferentzia?

Helburua: Ikaslea gai da testua agertzen diren aditzondoak eta izenordainak beheko izen egokienarekin erlazionatzeko.

Gaitasunak: 1,7 eta 8.

Ariketaren garapena:

Hasiera: Irakasleak ikasleei aditzondoak eta izenordainak dituen testu bat emango die. Ondoren, adieraziko die, mekanismo horietako bakoitza beheko aukerekin lotu behar dituztela.

Garapena: Ikasleek irakasleak emandako testua irakurriko dute. Irakurri ondoren, aditzondo edo izenorde bakoitza dagokion multzoko aukera batekin lotu

behar dute. Horretarako, ikasleek mekanismo bakoitzeko lau aukera ezberdin izango dituzte. Banaka buru beharreko lana izango da.

Bukaera: Irakasleak ikasleen lana behatzen egongo da horiek egiten duten bitartean. Zuzenketari dagokionez, guztien artean zuzenduko dute lana eta irakasleak testua berriro irakurriko du erantzun egokiekin.

Denbora: Jarduera hau burutzeko 30 minutu izango dituzte gehienez ere.

Materiala: Testua eta arkatza.

Testua: Egun batean, buruzagia etxola ondoko lorategia zegoen ikusten eta konturatu zen belarra ez zegoela moztua, horretaz gain, balkoian zeuden loreak zimurtuak zeudela ikusi zituen. Orduan langile bati etortzeko esan zion. Langilea **hara**₁ hurbildu zen eta **hark**₂ **hari**₃ galdetu zion zer nahi zuen eta **hark**₄ esan zion: **hemengo**₅ belarra moztu behar du, ondoren **hor**₆ dauden loreak ura behar dute. Nekazaria tresnen bila joan zen **bertako**₇ lanak egiteko. Bitartean, lankide batek galdetu zio ea zer egiten zuen **han**₈ lanean, eta **hark**₉ erantzun zion nagusiak esan ziola lorategia apaindu behar zuela.

1) a: mendira
b: parkera
c: lorategira
d: etxera

2) a: langileak
b: buruzagiak
c: lankideek
d: lagunek

3) a: langileari
b: lankideei
c: buruzagiari
d: lagunei

4) a: buruzagiak
b: lankideak
c: langileak
d: familiak

5) a: mendiko
b: lorategiko
c: etxeko
d: parkeko

6) a: mendian
b: balkoian
c: lorategian
d: etxolan

7) a: Lorategiko
b: etxeko
c: etxolako
d: mendiko

8) a: herrian
b: etxean
c: mendian
d: lorategian

9) a: langileak
b: lankideak
c: buruzagiak
d: gurasoek

10. jarduera: Ea zer ikasi duzun!

Helburua: Ikasleek bi argazki horien bidez istorio bat sortzea, aditzondo eta izenordeak erabiliz.

Gaitasunak: 1, 4, 7 eta 8.

Ariketaren azalpena

Hasiera: Ariketa egiten hasi aurretik, irakasleak bi argazki jarriko ditu arbela digitalean. Ondoren, irakasleak esango die bertan ikusten dutenaren inguruan istorio bat kontatu behar dutela, beti ere landu ditugun aditzondoak eta izenordeak erabiliz.

Garapena: Ikasleek arbela digitalean dituzten bi argazki horiek begiratu eta aztertu behar dituzte, ondoren, istorio bat sortu behar dituelako. Istorioan, izenordeak eta aditzondoak erabili behar dituzte. Bakarka burutuko dute.

Bukaera: Irakasleak, jarduera bukatutakoan, idazlanak jasoko ditu eta bertan zuzenketak egingo ditu. Hori egin ondoren, ikasle bakoitzari adieraziko dio zer egin duen ongi eta zer hobetu behar duen.

Denbora: Saio oso bat izango dute ariketa egiteko ikasleek.

Materiala: Argazkiak, orri bat eta arkatza.

Argazkia:.



CONCLUSIONES

En el proyecto que he realizado, sobre todo se ha planteado una propuesta didáctica para trabajar los mecanismos de referencia, donde se han profundizado la pronominalización y la correlación temporal. He decidido hacer esta propuesta porque es importante que los alumnos sepan cómo tienen que emplear o trabajar esas dos áreas, esto es, tienen que saber hacer una referencia mediante esos mecanismos en un texto o en una frase sin repetir las palabras.

Además, he decidido proponer esta unidad porque se ha visto que en la escuela su trabajo es escaso. Una de las causas, como he puesto en el punto tres, es que en los métodos que se trabajan en la escuela hoy en día no se trabajan ni la correlación del tiempo verbal ni la pronominalización. Ya que solo se limitan a proponer ejercicios sueltos para trabajar los elementos anafóricos y el tiempo verbal. Esto, deja en evidencia que no se trabajan los mecanismos de referencia, por lo tanto, los alumnos no le sacan rendimiento a esos aspectos, y a la hora de construir una oración o un texto esa carencia se deja ver, porque es un aspecto que los estudiantes no controlan.

Por eso, para lograr la sabiduría fundamental sobre el lenguaje, me parece que es un aspecto que hay que trabajar en la escuela. Para eso, se deberían de proponer ejercicios que tengan el mismo objetivo que tienen los ejercicios propuestos en esta programa didáctica. Eso conlleva alejarse de los libros de texto, que hoy en día solo se limita a trabajar eso y por lo tanto, se dejan sin trabajar o se trabajan poco varios aspectos, por ejemplo, los mecanismos de referencia.

Viendo la situación de hoy en día, he planteado diversos ejercicios para profundizar los aspectos mencionados anteriormente. Al principio ha sido difícil establecer la propuesta, porque no encontraba claros ejemplos para ello. Entonces, primero, he analizado el desarrollo de los niños, para poder determinar de dónde tenía que empezar con el trabajo. Una vez analizado, he empezado a recopilar material necesaria para hacer la propuesta, pero me he dado cuenta de que no hay muchos ejemplos y he tenido que inventar o adaptar los ejercicios. En consecuencia, he tenido

dificultades para plantear ejercicios o para especificar el tipo de ejercicios. Por lo tanto, con la ayuda del tutor hemos planteado diferentes ejemplos y a raíz de eso he planteado las actividades que aparecen en la propuesta.

Por otro lado, he especificado tres tipos de actividades, que consisten en rellenar los huecos, identificar y corregir los errores, y elegir la palabra correcta. Además, los ejercicios propuestos son para trabajar en nivel oracional, habiendo unos pocos que sean de nivel textual. Por eso, recomendaría plantear ejercicios de otro tipo y que sobre todo para trabajar en nivel textual, así los alumnos identificaran tanto los mecanismos anafóricos como la correlación de tiempo verbal en ese nivel.

Además, sería adecuado plantear ejercicios para trabajar la oralidad, para que los alumnos se den cuenta que los mecanismos de referencia no solo se usan en el nivel escrito sino que también en el nivel oral. Encima, los alumnos trabajarían la creatividad, porque tendrían que construir ejemplares en el momento del habla..

Teniendo en cuenta el planteamiento del programa, en general, la mayor dificultad he tenido, como he mencionado al principio, a la hora de plantear los ejercicios, porque no he encontrado claros ejemplares. Además, he tenido dificultades a la hora de escoger textos adecuados para los ejercicios. Por lo tanto, los he tenido que adaptar para los ejercicios.

Para terminar, con este proyecto he desarrollado nuevos conocimientos, porque al principio no tenía muchos conocimientos acerca del tema. Por lo tanto, después de semanas de trabajo he aprendido algo nuevo. Además, con este trabajo aprendido que pasos hay que dar para elaborar una programa didáctica, y como hay que trabajar esos dos aspectos en clase.

BIBLIOGRAFIA

Aduriz, I., Ceberio, C. eta Díaz de Ilizarra, A. (2005). Euskarazko anafora pronominala: ikuspuntu konputazionala eta corpus baten garapena, *Gogoa*, 5, 91-116.

Alberdi, A. (2005). *Euskara eta Literatura – Batxilergoa 1*, Andoain, Leitzaran Grafikak.

Aranberri, I. (2008). *Adi-adi euskarari 3*. Etxebarri: Zubia Santillana.

Aranberri, I. (2008). *Adi-adi euskarari 4*. Etxebarri: Zubia Santillana

Arenaza, L. (2012). *Euskara 3*. Bilbo: Giltza.

Arenaza, L. (2012). *Euskara 4*. Bilbo: Giltza.

Barlett, E. J. (1984). Anaphoric reference in written narratives of good and poor elementary school writers. *Journal of Verbal Learning and Verbal Behavior* 23(4), 540–552.

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 3*. Donostia: Ikaselkar

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 3, 5. lan-koaderno*. Donostia: Ikaselkar.

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 3, 6. lan-koaderno*. Donostia: Ikaselkar.

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 4*. Donostia: Ikaselkar.

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 4, 7. lan-koaderno*. Donostia: Ikaselkar

Barrena, S., Estonba, I., Lasa, I., Lasa, J. eta Saenz, M. (2005). *Euskara 4, 8. lan-koaderno*. Donostia: Ikaselkar

Duran, A. eta Unanue, N. (2012). Indikatiboa orain (nor 2). [Ariketa]. 2014ko maiatzaren 12an, astelehenean kontsultatua.

http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indik_orain_nor2.htm

Duran, A. eta Unanue, N. (2012). Indikatiboa Lehen(nor 2). [Ariketa]. 2014ko maiatzaren 12an, astelehenean kontsultatua.

http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indik_lehen_nor2.htm

Euskaljakintza (2012). Indikatiboa orain (nor). [Ariketa]. 2014ko maiatzaren 12an, astelehenean kontsultatua.

http://euskaljakintza.com/ariketak/aditza/indik_orain_nor.htm

Galtzagorri elkartea (2013). Irudiz irudi, liburu ibiltari. [Dokumentua]. 2014ko maiatzaren 20an, asteartean kontsultatua.

<http://www.galtzagorri.org/behinola/dokumentuak/1304.pdf>

Garay, U., Etxebarria, A. eta Romero, A. (2012). *Euskara 3*. Madril: Anaya Haritza.

Garay, U., Etxebarria, A. eta Romero, A. (2012). *Euskara 4*. Madril: Anaya Haritza.

García Azkoaga, I. M. (2004). *Kohesio anaforikoa hiru testu-generotan*. Doktoretza tesia. Euskal ikasketan eta hizkuntzalaritza saila. Euskal herriko unibertsitatea. Bilbo.

García-Soto, X.R. (1996). *Era unha un neno... Estudio da evolución da linguaxe en nenos galegos-falante*. Santiago de Compostela. Sotelo Blanco.

García-Soto, X.R. (1999). *Desarrollo del lenguaje infantil y cohesión narrativa*, Comunicación presentada al XVII Congreso Nacional de AESLA. Alcalá de Henares, Madrid.

Gorrotxategi, J. (2009). *Testugintza*. Publikatu gabeko eskuizkribua.

Gutiérrez, M. (2013). Pertsona izenordainak.[Aurkezpena]. 2014ko maiatzaren 13 an, asteartean kontsultatua. <http://www.slideshare.net/MargaGutierrez/pertsona-izenordainak>.

Hickmann, M. eta Schneider, P. (1993). Children's ability to restore the referential cohesion of stories. *First Language* 13, 169–202.

Ikas (2008). Izen_sintagma,[artikulua]2014ko apirilaren 3an, ostegunean kontsultatua. <http://nagusia2.interne.iddikas.dyndns.org/~site/spip.php?rubrique88>

Ikas (2008). Aditz_sintagma,[artikulua] 2014ko apirilaren 8an, asteartean kontsultatua. http://nagusia2.interne.iddikas.dyndns.org/~site/IMG//pdf_2_Aditz_sintagma.pdf

Jakubowicz, C. (1984). On markedness and binding principles. *Proceedings of the north Eastern Linguistic Society*. 14, 154-182 orr.

Karmiloff-Smith, A. (1979). *A functional approach to child language: a study of determiners and reference*. Cambridge: CUP.

Karmiloff-Smith, A. (1985). *Language and cognitive processes from a developmental perspective*. *Language and Cognitive Processes* 1(1), 61–85.

Karmiloff-Smith, A. (1992). *Beyond the modularity: a developmental perspective on cognitive science*. London: The MIT Press.

Millogo, V. E. (2004). The use of anaphoric pronouns by french children in narrative: Evidence from constrained text production. *Journal of Child Language*, 32.2, 439-461.

Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua (2007). *Curriculumua. Lehen Hezkuntza (1.liburukia)*. Nafarroa: Lizarra grafikak.

Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua (2007). *Curriculumua. Lehen Hezkuntza (2. liburukia) Hizkuntzen tratamendu integratua: Gaztelania eta Literatura (L1), Euskara eta Literatura. D eredua (L1), Euskara. A eredua (L2), Ingelesa (L2)*. Nafarroa: Lizarra grafikak.

Ortega Alcántara J. (2007) *Desarrollo de la referencia anafórica a través de los clíticos de objeto en el discurso narrativo de niños en edad escolar*. Tesis de maestría en lingüística. Facultad de Lenguas y Letras. Universidad Autónoma de Queretaro. México.

Pitchford G. (2014). Primary Resources. [Homepage]. 2014ko maiatzaren 14an, asteazkenean kontsultatua. <http://www.primaryresources.co.uk/>

Serra, M., Serrat, E., Bel, A. eta Aparici, M. (2000). *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Planeta S.A.

Shum G. (1993). El pronombre en el lenguaje formal del niño. *Infancia y aprendizaje*, 61, 107-121.

Solan, L. (1987) Parameter setting and the development of pronouns and reflexives, en T. Roeper y E. Williams (eds.). *Parameter Setting*, Dordrecht, Reidel, 189-210 orr.

Weist, R.M. (1986). Tense and aspect. En P. Fletcher, M. Garman. *Language acquisition* (2.ª ed.). Cambridge, MA.

Wexler, K. eta Chien Y.C. (1985). The development of lexical anaphors and pronouns, en *Papers and Reports on Childs Language Development*, 24, 149-183 orr.

ERANSKINAK

1go eranskina.

FITXA: Sailkatu itzazu ondoko aditzak beheko taulan dagokion tokian.

naiz	genituen	ditut	gara	nintzen
ginen	dira	zituzten	ziren	dituzte
	nituen			ditugu

IRAGANA	ORAINA

2.Eranskina:

IRAGANA	ORAINALDIA	GEROALDIA
		Joango naiz
		Erosiko ditut
	Ekarri dizkiot	
		Egingo ditugu
Jaiki ginen		

- 1) Goiko taula kontuan izanik, adierazi hurrengo bost lerrotan **atzo** zer egin zenuen:

- 2) Goiko taula kontuan izanik adierazi hurrengo bost lerrotan **bihar** zer egingo duzun:

3.eranskina: osatu esaldiak hitz egokia aukeratuz.

-Iaz, bizikletaz egiten ... hondartzarako bidea.

a)ginen b)genuen c)gara

-Itxaron!zuekin joango eta.

a)nintzen b)dute c)naiz

-Ez negarrik egin! Eskolako lagunak datorren astean ikusiko ... eta.

a)zenituen b)dituzu c)ziren

-Lehen, sarritan joaten ... igerilekura.

a)genion b)ginen c)diogu

-Atzo arratsaldean anaiarekin parketan ikusi ...

a)nizun b)nizuen c)zintudan

-Orain ipuin kontalariari galderak egin behar... guztiek.

a)dizkiozue b)duzue c)diozue

4. Eranskina: Irakasleak ikasleei pertsona izenordainak zeintzuk diren adierazteko erabiliko dituen irudiak.

	1. PERTSONA	2. PERTSONA	3. PERTSONA
SINGULARRA	 <i>Ni</i>	 <i>Zu</i>	 <i>Hura</i>
PLURALA	 <i>Gu</i>	 <i>Zuek</i>	 <i>Haiek</i>